

GAZTARO BILDUMA

RENATAK PIANOA JOTEN DAU,  
INGELESA IKASTEN DAU ETA  
ETABAR, ETABAR, ETABAR



Ramón García Domínguez



## GAZTARO BILDUMA

---



---

## RENATAK PIANOA JOTEN DAU, INGELES IKASTEN DAU ETA ETABAR, ETABAR, ETABAR

---

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren  
diru-laguntza jaso dau.

© Ibaizabal Argitaletxea, 1994  
Editorial Luis Vives-en oneritziatz  
ISBN: 84-7992-583-3  
Legezko gordailua: BI -2348- 94  
Tailer grafikoak: ZURE, S.A.

*Egilea:* Ramón García Domínguez  
*Marrazkilaria:* Javier Zabala  
*Itzultzailea:* Sabin Barruetabeña

*SENEKA jakitunari umea zanean.  
Dinoenez, bera ezagutzera etorri  
ei ziran Kordobara, haren jaiote-  
rrira, Erromako beste jakintsu bat-  
tzuk —adintsuak eta bizardu-  
nak—, eta ikusirik ziban jolasten  
ebilela beste mutiko batzuekaz,  
esaten eben besteko jakintsua iza-  
nik, harriturik itandu eutsien:  
— Zer egiten dozu, Seneka umea?  
— Hementxe, adinari berea emoten  
—erantzun eban jakituriaz.*





## I. RENATA

**B**ai, Renata dau izena, baina ez uste Renata eritxon amamaren bat izan ebalako, kasu honeetan gertatzen dan lez edo Edubigis, Martzelina edo Eladiaren kasuetan ohi danez, Renataren amak —Maribel deritxonak— egun baten agerpen bat izan ebalako baino.

— Agerpen bat izan dot —bota eutsan bere senarrari, goizaldeko bost t'erdietan irartzartuz. Gure semea Renato izango da.

— Eta neskea bada? —erantzun eutsan senarrak aharrasui eginez eta begiak igurtziz.

Maribelek, Renataren ama izango zanak, ez eban zalantzarik izan une baten ere; zazpi hilabeteko haurdun egoan eta horregaitik bere senarrak, don Manolok, goizaldeko bost t'erdietan bapatean irartzartzea lako gurariak parkatu egiten eutsazan.

— Ba neskea bada, Renata izango da.



— Renata?! —itandu eban don Manolok, ikare-az guztiz itzarturik.

— Renata, Manu, Renata.

Doña Maribelek, Renataren ama izango zanak, Manu esaten eutsan senarrari bizitzako egoera serioetan, eta don Manolo hartuemon ohizko eta arruntetan. Beharbada badirudi alderantziz izan behar leukela, baina Renataren ama nahiko emakume paradoxikoa zan eta oso ideia pertsonalak eukazan. Eta baita oso sendoak ere. Izan ere, bere sabeleko frutua Renato edo Renata, mutila edo neska izatearen arabera, deitzea erabagi eban egunetik edo hobeto goizaldetik, ezin izan eutsan inortxok ere bere temea burutik kendu. Hau da, inork ez eutsala eritzia aldatuazo, esan nahi dot.

— Baina zergaitik Renato edo Renata, Maribel, jakin leiteke? —itandu eban don Manolo onkoteak, aharrausi eginez kaiman baten moduan.

— Oso sinplea, Manu —jarraitu eban serio berba egiten!—; hemen barruan daroadan mutiltxo edo neskatxo hau —eta atzamar erakuslea sabel-zorroan jarten eban lur globo baten jarriko baleu lez— barriri jaio da, ala ez zara gogoratzen? Renato bat da, Manu, “bir-jai-o-a”, horixe dalako izen honen esanahia.

Renataren ama izango zanari ez jakon arrazoirik falta. Izan ere, bi hilabete lehenago, gabonetan, doña Maribelek istripu bat izan eban eta medikuak galdutzat emon eutsien sabelean eroan umea.

Don Manolok esan eutsan bere emazteari:

— Maribel, kontuz, zu ez zagoz txerpolaritzarako eta...

Astirik ere ez eban izan esaldia amaitzeko. Gabonetako zuhaitzaren puntan zidarrezko izartxoak jarteko Maribel igota egoan eskilarak bapatean laban egin eban eta gure emakumea bizkarrez jausi zan lurrera luze-luze. Konortea galdu eban, anbulantzia eroan eban ospitalera eta han osagileak esan eban amari ez jakola ezer gertatu —ubeldura batzuk baino ez—, umea ostera...

Doña Maribelek eta don Manolok negar egin eutsien aste betez zoritxar itzelari. Aste bete doidoi. Baina ez, ez ebelako penarik ez malkorik egun gehiagotarako, istripu juxtu astebetara, doña Maribel itzartu goizaldeko bost t'erdietan eta bere senar eroapentsua astintzen hasi zalako baino:

— Manu, itzartu, itzartu, mugitu egiten da, mugitu egiten dala!

— Eh, eh...? —oihu egin eban, nahastuta, don Manolok—. Lurrikararen bat ala...?!

— Zer lurrikara edo! Mugitzen dana umea da! Begira, ipini hemen eskua eta ikusiko dozu...

Eta doña Maribelek senarraren eskua hartu eta sabel biribilean jarri eban.

— Ez dozu sentitzen zelan mugitzen dan, Manu? Ostikadatxoak emoten dihardu... Bizirik dago, bizirik, bizirik, bizirik!!

Renataren ama izango zana ohearen gainean zutundu eta saltoka hasi zan kanguru baten moduan.



Don Manolo, bere aldetik, albiste handi horregaz guztiz itzartu zanez, telefonora joan zan arineketa eta Agustini, bere anaia bikiari deitu eutsan:

— Agustín, ba... zera...!

— Bajakiat —eten eutsan esaldia—: Umea bizi-rik dagoala, ezta?

— Zelan dakik...? —itandu eutsan don Manolo, pozez zoraturua adinean harritua.

— Nabaria, Manu maitea. Telefonoak jotzen bajok goizaldeko bostak eta hogeita hamazazpian eta hire ahotsa entzun, barri ona dan seinalea; bestelan Maribelek deituko joan, ez hik. Eta zein dok une honeetan nire anaia Manolo maitearen etxetik etorri leiteken barririk onena? Ba, galdutzat zeunkien umea barriz higitzen dala amaren sabelean, ezta?

Agustinek, don Manoloren anaia bikiak, ez eban, hain zuzen ere, Holmes abizena, Sherlock Holmesen entzera (Gutierrez Cejudo baino), baina detektibe pribatua zan, entzute handiko detektibe ingelesa lez. Dana dala, egiaren ohoretan, ez zan zuhurtasun handirik behar anaiaren deia, goizaldeko ordu hareetan, barri on bat emoteko zala asmatzeko. Bere anaia bikiak, Manuelek, erabagi sendoa hartua eban, haitza baizen sendoa, inori ez telefonetzeko gauerdetik aurrera, zerbait preminazkoa esateko ez bazan —hori lehenengo eta behin—, eta, horrez gainera, atsegina izan eitela. Barri txarrak ezorduetan emon eizala bere emazteak edo beste edonork, berak ez, inoiz ere ez.

Noiz hartu eban don Manuelek halako erabagia? Ba egun baten, egunkaria irakurtea amaitzean. Beharbada, irakurleak ondorioztatuko dau aurrerago gaiaz berba egingo dogunean, erabagi honek zerikusia izan ebala don Manoloren lanbideagaz, baina kontua da gauzak honelantxe gertatu zizala: amorruz bota eban egunkaria lurrera eta

oihuka esan eban:

— Prensak ere barri txarra besterik ez dakar!, sinestea ere! Guzurra dirudi!

Eta beharbada aurka egiteko, bururatu jakon don Manolori telefonoarena. Baina, asko itxaron barik, hara zer dilema agertu jakon bere erabagia beteteko! Eta asko itxaron barik, erabagia hartu eta epe laburrera izan zan, bizitzeak bere adarjoteak ditu eta!

Emaztea eta biak seko lo egozala —istorio hau hasi baino zazpi hilabete lehenago— bapatean Maribel itzartzen da asaldaturik eta hasten da kexuka:

— Ito behar dot, Manu, ito egin behar dot! Eta orain botagura naz, afarian zerbaitek kalte egin deust...!

Eta emaztea komunera arineketan doan bitartean, don Manolo ere arineketan doa medikuari abisatzera:

— Jauna, zatoz arin mesedez, nire emaztea...!

Don Manolo bapatean isildu egin zan, konturaztean zerbait ezkorra esatera joiala, eta esan ahala zuzendu eban.

— ... nire emazteak... ziurren ume bat izango dauala eta horregaitik daukaz okadak eta ondoezak, badakizu, jauna? Oraintxe bertan...

— Baina haurdun dago ala? —eten eutsan medikuak.

— E... egon daiteke, jauna; sintometatik...

Eta arrazoia eban don Manolok!

Emaztea, doña Maribel, haurdun egoan Renataz, hain zuzen ere, istorio honen protagonistez. Aldatu egin eban, bere kontura, emaztearen ondoezaren “barri txarra”, balizko haurdunaldiaren “barri on”, eta bete-betean asmatu!

Hurrengo goizean (don Manolori larrialditako medikuak telefonoz agindu eutsan lez) joan ziran senar-emazteak ginekologoagana eta honek barri pozgarria baieztatu egin eban: doña Maria Isabel ama izatera joian.

Orduan autortu eutsan senarrari aurretik barruntatzen ebalako... beno, barruntatzen ebalako, baina ez eutsala ezer esan ziur egon arte. Eta orain ziur egoanez, ospatu beharra eukien!

Hartu eben txokolatea txurroekin, horixe zalako biei munduan gehien gustatzen jakena (beno, doña Maribeli bardin gustatzen jakon bere amaginarrebeak, don Manoloren amak, egiten eban marmeladea ere), eta gauean dantzan egitera joan ziran ezkongaitan, urte batzuk lehenago, ohi eben diskotekara. Sasoi hareetan diskotekeak “Paradisu” eban izena eta orain “Black Cavern”; aldi hareetan doinu alai eta nasaiak jotzen zituen eta orain erritmo gogorrak, baina egia esateko, don Manolo eta doña Maribel, doña Maribel eta don Manolo ia ez ziran konturatu aldaketez. Eurak alkarri begietara begiratzen eutsien eta aita-amak izango zirala pentsatzen eben bakarrik. Bidean zan ume harek ordurako egozan baino alkartuago egingo zituan. Hori pentsatzen eben orduan...

Eta Renata martxoaren 21ean etorri zan mundura, udabarria datorren egun berean.


— Ikusten dozu, don Manolo? —adierazo eutsan amak, erditzearen estualdi guztiak paseak zira-nean—. Udaberriagaz etorri da, izadiaren berpizteagaz batera. Arrazoi bat gehiago Renata deitzeko.

Doña Maribel zoriontsu egoan —horregaitik deitu eutsan don Manolo don Manolori—, eta begi luratuekin begiratzen eutsan alabeari. Gero hasperen egin eta esan eban, ahots berezi batez:

— Emakume handia izango da, ikusiko dozu, Manu.

Don Manolok nahiago eban emazteak don Manolo deitzea xamurtasunez eta ez Manu, Manu esaten eutsan bakoitzean bizitzea solemne jarten zala sentitu eta hotzikara batek astintzen ebalako. Kontua da bizimodua ez dala hartu behar serioegi, Don Manoloren eritziz, beste arrazoi batzuen artean bizitzeak ere ez ebalako bera seriotan hartu. Ikusiko duzue zergaitik dinodan hau:

Don Manolok, Manolo besterik ez zanean eta 18 urte eukazanean, Medikuntza fakultatean matrikulatu gura izan eban, baina ez eben onartu batezbesteko honenbesteko puntuazio bat eskatzen zalako espedientean eta berak puntuazio txikiagoa eukalako. Berak lortua eban batezbesteko noteaz Zuzenbidean, Historian, Enpresaritzan eta Psikologian matrikulatu eitekean, eta azken honen aldeko erabagia hartu eban, bere bokazioa “jendeagaz hartuemonak” izatea zalako, berak azaldu ohi ebanez.



Gauzaategaitik edo besteategaitik ezin izan eban matrikulatzera joan azken egunera arte. Heldu zan Unibertsitateko Idazkaritza nagusira hiru ordu lauren falta ziranean leihatilak ixteko eta psikologiakoan itzelezko jende iladea aurkitu eban. Eta jakina, han jarten bazan bere txandearen zain,

ordua heldu eta matrikulatu barik geratzeko arriskua eukan eta ikasturte oso bat galtzekoa, eta hori gertatu ezkerok aitak “tragauko” eban, seguru. Zer egin? Leihatila bakoitzeko iladak aztertzen ditu, behatzen dau “berantiar” hareetako bakoitzak zenbat denpora behar dauan bere gestioa egiteko, kalkulu egiten dau zenbat pertsonak matrikulea egin daikien geratzen dan denporan, eta erabagiten dau iladarik laburrenean jartea, bere kalkuluaren arabera beharrezkoak diran tramiteak egin ahal izango ditualako, eta gainera hiru edo lau minutu sobratu.

Beraz: Manolo Gutierrez Cejudo, sendagile eta gero psikologo izateko asmotan zanak, Enpresaritzan matrikulatua urten eban aduaren bihurrikeriak bitarteko.

Baina ez ziran horretan amaitu bizitzako txantxak! Enpresaritzan ikasi eban, bai, baina amaitzean... ai, ez eban lanik aurkitu! Eta ogia irabazi behar ebanez urteetan aurrera joialako, Posta eta Telegrafoetako oposaketa batzuetara aurkeztu zan eta atara egin zituan. Orain postaria zan. Baina batzuetan Jaungoikoak zuzen idazten dau lerro okerretan, dino herri esaereak. Eta, hain zuzen ere, postaria izategaitik —eta ez sendagilea edo psikologoa berak amets egiten eban lez— ezagutu eban Maria Isabel Arias Coscón, bere emazte izango zana eta Renataren, istorio honetako protagonistearen ama.

Maria Isabel andereñoari idazten eutsan, egun batean bai eta bestean ez, oporretan hondartzan

ezagutu eban Zaragozako mutil batek. Eta Maria Isabel andereñoak Zaragozako mutilaren gutunak hartzeko halakoxe guraria ebanez, leihora urtetan eban postaria heltzen ikusteko eta arineketan jaitzen zan gutunak eskuan hartzera atariko gutunontzian itzi baino lehen. Egia da bai lehenengo egunean bakarrik egin behar izan ebal arineketan, aurrerantzean postaria bera —Manolo Gutierrez Cejudo— izaten zalako patxadatsu itxaroten eutsana, behar eban denpora guztia. Lehenengo egunean neskea ikusi eta beragaz maitemintzea dana izan zan bat. Maite-garra iziotu eta hilabetera juxtu, Manolo postariak ausardia izan eban Maria Isabel andereñoari bere gutun bat emoteko —berak idatzia, esan nahi dot—, Zaragozako mutilarena emon beharrean.

Maria Isabel andereñoak hartu eban eta ez eban txitik ere esan. Hurrengo egunean ere ez. Eta horrelan aste bi oso-osorik. Azalpen bat ere ez, ez da destainarik ere. Ezer ere ez.

Baina hamabostgarren egunean, Manolo Gutierrez Cejudok bere gutuna emon eutsanean, andereñoak ere, beste bat emon eutsan postariari.

—Niretzat? —itandu eban, ahots izpi batez, Manolok.

Baina Maria Isabelek ez eban ezer esan. Irribarre txiki bat egin eta igogailuan sartu zan.

Eta horrelantxe hasi zan Renataren gurasoen ezkonpidea (ze orduan ezkonpidea esaten jakon: Maribel Manoloren emaztegaia zan eta Manolo Ma-

ribelen senargaia).

Manolo Gutierrez Cejudori lankideak Manolo esaten eutsien, baina Maribel Manu deitzen hasi zan. Esaten eban xeratsuagoa zala.

Behin Postan Bulegoburu izendatu eben Manolo (osagile izateagaz amets egin ebana!) eta menpeko guztiak hasi jakozan don Manolo deitzen.

Isabeli, emaztegaiari hain bitxia iruditu jakonez, harrezkero, txantxetan berak ere don Manolo deitzen eutsan. Une larrietan, eta maiteminduen haserre eta muturraldietan, jarraitzen eutsan Manu deitzen.

Renataren ama izango zana oso emakume zera zan... Ez dakit zelan esan.

— Paradoxikoa?

— Hori, paradoxikoa! Zelan asmatu dozu?!

— Ia liburuaren hasieran esan dozu.

— Ah, bai, eskerrik asko. Ba, bai, doña Maribel, ezkon aurretik eta ondoren, beti izan zen paradoxaz betetako emakumea. Esan nahi dot egun baten gauza bat zirudiala eta hurrengoan aurkakoa. Gehiago: “zuria” esatera joiala emoten ebanean, “baltza” esaten eban, edo alderantziz. Eta kolorea aitatu dodanez: gizon baltzaran bategaz ezkontzea amets egiten eban eta hara nondik, don Manolo ulegorriagaz ezkondu. Goiz jagi behar eban gizonagaz ez ezkontzeko berbea emona eban bere burua, eta don Manologaz ezkondu zan, eta hau sekula ere ez zan zazpiak baino beranduago jagiten (domeka eta jaietan izan ezik). Bere senarrak pipea erreko ebalan esan eban beti, baina don Manologaz ezkondu

zan, erre ere egiten ez eban arren.

Lagunen batek, erdi bromatan erdi benetan, kontraesan honeek aurpegira botaten eutsazanean, berak erantzuten eban:

— Bah, umeen ametsak! Haurtzaroko fantasiak!

Baina kontua da Maribelek ez eutsala inoiz itzi amets egiteari. Lehenengo bere buruaren inguruan, eta gero... beno, gero ikusiko dogu bere garaian.

Renataren amak arpajole izan gura eban. Bai, bai, arpajole, arpa joten dauana, hori da. Irakurri eban behin poesia bat honela inoana: “arpa jotea haizea atzamarrez orraztea lez da”, eta arpajole izatea erabagi eban.

— Arpajole bokazioa daukat —esan eutsan amari. “Bokazio” berbeak Maria Isabel pozez zoratzten eban, hobeto esan, liluratu egiten eban. Eta bokazioa itu-itsuan jarraitu behar zan haren ustez.

Maribelen gurasoak, ostera, ez eben bardin pentsatzen, eta kalkuluak egin zituenean zenbat balio eban arpa-irakasle batek eta, batez ere, zenbat balio eban arpa batek, erabagi eben —alaba bakarra zanez, gastu gehiagorik ez eben arren— euren alaba Maribelen bokazioa ohizkoa eta arrunta izan eitela, hau da, ikasi beste edozein amaren seme edo alabak lez eta gero Jaungoikoak esango.

— Ba, dirua dodanean —bota eban Maribelek, bere hamabost urte liratekaz—, arpa ikasiko dot!

Hamazazpi urte bete barriak zituenean erakartzen ebana aktorea bokazioa izan zan. Berak ez eutsen autortu gurasoei zelan sortu jakon bokazio ha,

baina bai lagun min bati:

— Badakizu zer esan eustan atzo osaba Agustinen lagun batek? Zinemarako begiak ditudala.

Eta dagoaneko ikusten eban Maribelek bere aurpegia pantaila guztia beteten, bere begi handi eta sakonez ikuslea zorutzen.

“Begi handi eta sakonak” aitaturko eutsazan, urte batzuk geroago, bere senargai Manuelek. Eta ziur, hain lore politak entzutean, Maribelek gogoratuko eban bere aktorea bokazio zapuztua ere eta zergaitik ezin izan eban jarraitu: gurasoak uste eben Arte Dramatiko Eskolan matrikulatzeko, Madrilerako joatea hain gazterik, eragozpen larria zala. Jakina, berari barriro ere diruarena atara eutsien “barnetegi batek Madrilen itzel garesti jotzen dau”, eta antzerako ezak eta ezinak.

Kontua da, Maria Isabel Arias Coscón ez zala izan ez arpañole ez zinema aktorea, eta etxeakoandre geratu zan, unibertsitateko urte bi eta postaz egindako kontabilitate ikastaro batez kontable lana egin supermerkatu baten eta horrelan ezkontzeko Manuel Gutierrez Cejudogaz, denporak ez egozalako soldata bakarretik bizitzeko, Postetxeko Bulegoburuarena izanik ere soldatea.

Maria Isabel etxeakoandre “geratu” zala, etab., etab. esan dot, baina txarto esan dot.

Maria Isabel ez zan geldi egoteko emakumea, gauza barriak probatzekoa baino, aldatzearen aldekoa. Berak uste eban bizitzan goranahia behar dala eta ez dala inoiz ere etsi behar. Baleiteke irakurleak

jarrera horri eriztea, bokazio pertsonalari zor jakon zintzotasunaren aurkakoa —bokazioak eskeintza eta sendotasuna eskatzen ditualako—, eta Maribel horren alde dago, baina irakurleak ez dau ahaztu behar Maria Isabel Arias Coscón emakume kontra-esaneko eta paradoxikoa zala, esana eta egiaztatua itzi dodan erara.

Eta dana dala, zergaitik ezin dira alkartu, adibidez, etxeakoandre eta supermerkatuko kontablearen bokazioa, lapikogin edo zeramistearenagaz, hain zuzen ere Maria Isabel egiten ebilen ikastaroa bere alaba Renatak mundu honetako ateak jo zituanean.

Renata jaio zan, esanda dagoan modura, marxoaren 21ean, udaberriko lehenengo egunean.

— Andra handia izango da —ebatzi eban amak.

Baina egia esan, ezerk ez eban biderik emoten auresateko, Renata baba-zorri negartia besterik ez zalako bere begi urtenekin.

— Renata barik Ranita —igeltxo— deitu behar geunskio —esan eban aitak, don Manolok, lehenengoz ikusi ebanean.

Eta Ranita jarraitu eutsan deitzen, maitasunez, harik eta... harik eta zer dakit nik noiz arte, beti!

Amaren aldeko aitita-amamak Nata deitzen eutsien, Renataren zein Nataliaren laburdurea izan eitekena (baina eurak apropos egiten eben, jendeak bigarrena zala pentsatu eian) eta aitaren aldeko aitita-amamak, eta batez ere izeko Katik, markesaren alabea baino pinpirinagoa zanak eta izen guztien



amaierak “i”, “ito” eta “ita” egiten zituanak, Nati esaten eutsien, belarrirako atsegina izateaz gainera, Renatatik barik Natibitatetik eratorria emoten ebalako.

Renatari Renata deitzen eutsan bakarra amazan, doña Maribel. Ah, eta osaba Agustin, Renataren aitaren anaia bikia eta detektibe pribatua. Osaba Agustinek ere, Renataren bateoko aitabitxi izan zanak, esan eban umea emakume handia izango zala. Eta Renata izena oso ondo joakola emakume handi bati.

Don Manolok bizkarra jaso eban, baina doña Maribelek irribarrerik eztienez, ahapeka esan eban:


— Ikusi dozu, Manu? Zure anaia Agustinek ere, daukan sudurraz, hori dinoanean...

## II. PIANO A JOTEN DAU

**D**on Agustin Gutierrez Cejudok, don Manoloren, hau da Renataren aitaren anaia bikiak, benetan sudur ona eban detektibe lanean. Ehiza-txakur batek lantxe jarraitzen eutsan arrastoari. Arratsalde baten deitu eutsien ume bat galdu zalako hiriko zoologikoan eta zortzi minutu juxtutan aurkitu eban. Itandu eutsen gurasoei —atsekabez negarrez egozalak— ea zerbait galazo eutsien semeari zooan sartzean eta honeek ezetz erantzun eban.

— Beno, bai —gogoratu eban, bapatean, amak—: esan deusagu animalia guztiengana hurbildu eitekela, krokodiloengana izan ezik, badaezpada, urmaelera jausi eta haginkada batez hankea ez eioen erauzi.

Ez esan gehiago —erabagi eban Gutierrez Cejudo detektibeak—. Eta arineketan joan zan krokodiloen urmaelerantz. Han egoan umea, jakina! (Osorik eta onik, jakina!)



Beste baten piano bat desagertu zan. Pianoa, bai, hori esan dot, buztandun pianoa, gainera, diran handiagaz! Galdu egin zan. Etxebizitza batetik bestera altzariak eroatean gertatu zan. Altzarietako bat buztandun piano baltza zan. Ba, bidean, zazi, desagertu egin zan. Baina Gutierrez Cejudo detek-

tibeak baita aurkitu ere. Ez dot kontatuko hemen zelan egin eban, luze joko leuskigulako eta, gainera, geure istorioaren haritik aldendu egingo gindukez...

Oraintxe bertan kontatuko dodana beste piano baten istorioa da, hau harira dator eta. Pianotzar baldar bat, buztanduna hau ere, ez dakigu norik bazartua Renataren birraititaren etxeko sabaian. Renataren birraititak —aitaren eta osaba Agustinen aititak— Quintin eban izena, baina bizi zan herrian beti “Quinton” esaten eutsien, izan ere mendia baino handiagoa zan eta. Renataren birraititak ehun urte bete zituan eta familia guztia alkartu zan herriko etxean gertakaria ospatzeko. Aste bete iraun eban jaiak. Renatak orduan sei urte eukazan eta arratsalde baten, umeen merienda orduan, ez zan agertu sukaldean. Eta oso arraroa zan, Renatari itzel gustatzen jakozalako izeko Chon-ek, bere lehengusu Rafa, pekaztoaren amak prestatzen zituan ogi xerrak esnegain eta azukrez gantzutuak.

Rafak, pekaztoak, Renata lehengusinea ernegazoten eban berak asmatutako bertsu batzuez eta, beti ere, meriendatzeko orduan esaten zituan:

*Renata, Renata  
musua patata  
ogia ta nata.*

Renatak mihina atara eta “marikita” esaten eutsan. Ez asmo txarrez, ez, lehengusuak aurpegia

puntutxoez betea eukalako baino, benetako marikita edo marigoringoen hegoak lez. Halan azaldu eutsan neskatoak osaba Agustini, detektibeari, honnek errieta egin eutsanean, “marikita” berba itsusia zala esanez. Renatak, handik aurrera, irridoinu gehiagogaz esaten eutsan “marikita” lehengusu Rafari.

Kontua da, esan lez, “Quinton” birraititaren mendeurreneko aste haretako hirugarren edo laugarren arratsaldean, Renata ez zan agertu sukaldean meriendatzeko orduan.

Izeko Chon-ek, haren hutsaz oharturik, beste umeei itandu eutsen, batez ere Rafari, ea inon ikusi ete eben. Danak ezetz esan eben. Bazkal ostean inork ez eban Renata ikusi. Hori jakitean ama itzel larritu zan.

— Ene, nire alabea; ene, nire alabea; ene, nire alabea! —esaten eban behin eta barriro, eskilaretan gora eta behera.

Gero atarira eta kalera urten eban, eta etxe inguruak miatu zituan. Eta berak eta don Manolok, senarrak, bizikletak prestatzen ziharduela neskatoaren bila kanpora urteteko, ahots bat entzun zan etxearen teilatupean, hegala azpian. Argazki marko bat baino handiagoa ez zan leihatila batetik osaba Agustinek burua atera eban.

— Geldi, geldi, ez dago bila jarraitu beharrik, agertu da eta!

Bai, osaba Agustinek aurkitu eban lotan sabaiko buztandun pianoaren barruan. Han egoan Renata



txikia opil bat egin eta hautsez beterik. Atara kontuak zenbat hauts eukiko eban pianoak, baztertuta erozan urteekin!

Doña Maribelek, Renataren amak, umea tresna zaharraren barruan lotan ikusi ebanean, eskuak alkartu eta oihu egin eban:

— Ume hau predestinatua da, Manu!

Don Manolok hotzikarea sentitu eban bere emazteak Manu deitzean. Zerbait larria esatera joian seinalea.

— Predestinatua... zer-zertarako... jakin leiteke? —itandu eban bildurrez.

— Pianojole izateko, Manu! Ume hau pianojolea izango da!

— Zi... ziu zagoz?

— Maria Isabel Arias Coscón deitzen nazan bestean ziu! Bestelan denporeak esango dau. Ah, eta ez jako gertatuko niri lez, bizitzako gorabeherak hondatu eben nire arpajole bokazioa. Renata bihar bertan hasiko da pianoa jotzen.

— Bihar?! —esan eban harriturik don Manolok—. Baina bihar...

— Beno, etxera itzultzean, esan gura dot.

Itzuli ziran etxera —hau da, urira— “Quinton” aititaren urtebetetzeko jai astea amaitu zanean, eta doña Maribel, biharamunean, Musika Kontserbatoriora joan zan bere alabea matrikulatzera.

— Umeegia da —erantzun eutsien—. Eta, gainera, ikasturtea oso aurreratua dago.

Horregaitik etsi barik, doña Maribelek irakasle partikular bat bilatu eban. Honek ere oso umea zala esan eutsan pianoa jotzen hasteko eta, gainera, ba...

— Zelan oso umea?! —berbea kendu eutsan doña Maribelek—. Eta Mozart, zer? Bost urte zituan lehen kontziertua emon ebanean!



— Baina Mozart Mozart zan, andrea, eta nik ez dinotsut zure alabea bigarren Mozart izango ez danik, baina Mozartek, pianoa jotzen ikasi aurretik, solfeoa ikasi eban, eta horixe da zure alabeak egin behar dauana.

— Solfeoa?

— Bai, solfeoa: do, re, mi, fa, sol... ulertzen dozu?

— Ba apuntatu eizu solfeorako.

Eta Renata Gutierrez Arias, sei urtetxo t'erdigaz hasi zan solfeo ikasten don Candido Zumarra irakasleagaz, bere abizena baino altuagoa zan gizona, eta horrexegaitik zertxobait makurturik ibiltzen zana ateetan kabitu ahal izateko.

Ez zan denpora luzea Renatak irakurten ikasi ebala eta don Candido Zumarrak, musika irakasleak, abagunea aprobetxatuz, azaldu eutsan solfeoa irakurten ikastea lez zala, baina beste letra batzuekin.

— Letra honeei musika notak esaten jake.

— Ah...! —egin eban Renatak.

— Eta A, E, I, O, U esan beharrean DO, RE, MI, FA, SOL, LA, SI deritxe.

Renatak, gosea baino zuhurragoa izanik, erantzun eutsan don Candidori SOL eta SI ez zirela letrak, berbak baino. Eta oraindino gehiago esan eban: nota bat SI bazan, zergatik ez egoan beste bat NO deitzen zana.

— Ba ez dagoalako! —erantzun eutsan, don Candidok zertxobait haserreturik.

Renata astean hiru bider joaten zan solfeoko klaseetara. Egun bitan don Manolok, eroaten eban eta hirugarrenean, barikuan, bere ama Maribelek, aldi horretan ballet espainoleko ikastaro bat egiten ebilelako eta akademia bide batez eukan. Renatari gehiago gustatzen jakon aitak eroatea, urtetean,

une batez alboko parkean geratzen ziralako ziburu eta txirristetan. Don Manolok bultza egiten eutsan ziburuari eta Renatak beste inork baino gorago igoten eban.

Indartsuago aita, indartsuago! —esaten eutsan oihuka umeak.

Eta don Manolok barre-algarak egiten zituan, bildur pixka bat baeban arren, indartsuegi bultzatu eta bere Ranita buruzganka oso bat eginez, ez ete zan muturrez aurrera jausiko.

— Nahikoa da, Ranita, zorabiatu egingo zara!

— Bai zera, bultza indartsuago!

(“Ez dakit pianojole bokaziorik izango dauan —pentsatzen eban orduan don Manolok—, baina trapezistearena, ziur.”)

Eta ez ebilen oker Renataren aita bere susmoetan!

Egun hareetan zirko bat igaro zan uritik eta Renata emonaldietako batera joan zan aitagaz, Casilda lehengusineagaz, ahoan aparatoa eroana haginak zuzentzeko, Rafa lehengusu pekaztoagaz, eta osaba Agustin detektibeagaz. (Don Agustini, ezkongabea zanez, itzel gustatzen jakon lobakaz, batez ere Renatagaz, zinemara, karruseletara, edo beste barik paseatzera joatea.)

Ene, bai gozatu ebela bostok zirkuko funtzio haretan! Lehenengo iladarako sarrerak atara zituen eta bostak parte hartu eben, era batera edo bestera ikuskizunean. Rafa, pekaztoari, korroan dantzan eragin eutsien bost txinpantzegaz; don Manolori



laranja bat ebagiteko eskatu eutsien sastakai-jaurtizailearen sastakaietako bategaz benetakoa zala eta ondo zorroztua egoala egiaztatzeko; Casildak, Renataren lehengusineak, hagineta aparatoa eronak, batuteagaz orkesta bat zuzendu behar izan eban, tronpeta banari indarrez puzka ziharduen

bost fokak osatzen zuten orkestea; don Agustín, detektibea, pailaso bik pistara atara eben txangoka arineketa batean parte hartzeko, bainerea baino zapatatzar handiagoekin; eta azkenik, Renatari tertziopelezko kapa gorri zoragarri bat oparitu eutsien, txerpolarien ikuskizuna amaitu eta honeek han goitik jaitsi ziranean, umeak tximistea lez pistara urten eta musu zaratatsu bana emon eutsielako hiru txerpolariei.

Zirkuko aurkezleak hurreratu eta itandu eutsanean ea zergaitik egin eban, Renatak erantzun eutsan “itzel gustatu jakolako txerpolariena”.

— Eta zergaitik gustatu jatzu itzel? —itandu eutsan barriro aurkezleak.

— Aingeruak emoten ebelako... —erantzun eban Renatak.

— Baina konturatuko zinan ez dabela hegorik.

— Jakina, hori da ba onena! Hegoekaz edozeinek egiten dau hegaz...!

Trapezistei hainbesteko grazia egin eutsenez Renataren urteereak, ikuskizuna hastean pistara urteteko eroaten daben kapa horreetako bat oparitu eutsien. Kapa ederra zan, bere jabeari gerria baino beheratxoago heltzen jakona, baina Renatari, artean zazpi urte beteteko eukazanez, oinetaraino heltzen jakon eta arrastaka eroan arrabete edo bi.

Zirkuko funtziotik aste t'erdira, Renatak zazpi urte bete zituan. Eta jaia ospatzeko hamalau lagun gonbidatu zituan.

— Hamalau?! —egin eutsan oihu amak Renatak

esan eutsanean—. Ez dira etxean kabituko!

Ama-alabak berrikusi eben zerrendea ea inor kentzerik ba ote egoan eta azkenean ez eben inor kendu. Hamalaurak ziran garrantzitsuak eta beharrezkoak.

— Eta Karlitos Monge hau nor da? —itandu eban doña Maribelek—. Ez da zure ikasgelakoa!

— Ez, jakina ezetz, baina suhiltzaileen parkea bisitatzerako eskolaurreko guztiok joan ginanean, Carlitos Mongek berari tokatu jakon hodia hartzen itzi eustan eta orduan nik neure urtebetetzera gonbidatu neban.

Doña Maribelek marmar apur bat egin eta bizkarra jaso eban.

— Eta “Amatxi” hau...?

— Nire lagun Tereren lehengusina txikia da. Terek esaten dauanez oso lotsorra da eta ez dau lagunik eta inork ez dau konbidatzen jaietara, baina nik bai.

— Eta zuk izan behar zenduan lehenengo! —bota eban purrustaka ahapean Maria Isabelek—. Eta “Amatxi” dau izena? —itandu eban gero ozenkiago.

— Uste dut Alicia deitzen dala, edo Leticia, edo... ez naz gogoratzen. Baina danak esaten deustsie “Amatxi”, beti dabilelako “nire amatxik ez dakit zer... nire amatxik badakit zer...”

— Bai... Eh, eh!, eta nor da mutil hau, Ke'mo Vonnegut?

— Ez da mutila, ama, neskea da.

— Eta nondik urten da izen horregaz...?

— Uste dot Afrikakoa dala eta baltza da.

— Baltza?!

— Beno, edo ia baltza. Alejandra Eizaguirreraren aitaren lagun baten alabea da; Alejandra artzainak lez txistu jotzen dakiana da, zuri hainbesteko grazia egiten deutsuna...

— Bai, bai, Jandra, eta zer?!

— Ba bere aitak lagun bat dau Afrikan, eta ez dau ikusi, ufl, nik zer dakit ba noiztik, eta egun batzuk pasatzerako etorri da Jandraren etxera, eta haren alaba Ke'mok zortzi urte ditu eta Jandra urtebetetzera etorten bada, ba...

— Ondo, ondo, ondo! —ebagi eban doña Maria Isabelek—. Argi dago zerrenda honetan ez dagoa la inor sobran. Ea non sartzen ditugun hogeit lagun!

— Hamalau dira, ama.

— Hamalau gonbidatu zureak. Gehi osaba Agustin, hamabost; gehi izeko Kati, hamasei; gehi izeko Chon eta Adelita, hamazortzi; eta aita eta biok, hogeit. Ah eta zeu hogeit bat, ia ahaztu jatan protagoniste!

Ama-alabak barre-algaraka hasi ziran. Doña Maria Isabeli pasea jakon bere aldarte txarra.

Baina abagunea aprobetxatu eban...

— Zu, Renata —esan eutsan ahots eztiatz, buru atzean hazka eginez, uleen azpian, umeari asko gustatzen jakon moduan— zeure lagun guztiak ekarten izten deutsudanez, amari poz handi bat eman gurako deutsazu?



— Zein?

— Ba, zeure urtebetetean, osaba Agustin datorenez, hainbeste maite zaituana, eta izeko Kati, eta izeko Chon, eta Adelita... amari asko gustatuko litzakio solfeo liburuko ariketa bat edo bi abestea.

— Danen aurrean?

— Bai ba, ikusi daien zenbat ikasi dozun...

— Eta eskuaz konpasa eroanez, don Candidoren ikastaldietan lez?

— Zergaitik ez?, ikastaldietan lez, jakina.

Renata pentsati jarri zan une baten, amak hazka egiten jarraitzen eutsan bitartean, maitekiro, ulearen azpian.

— Ados —esan eban umeak—. Baina baldintza bategaz.

— Amatxori baldintzak jarten? —esan eban ahapeka doña Maribelek, tristura aurpegia jarriz.

— Beno, ez da baldintza, ikasi dodan beste gauza bat egiten ere iztea da guztia.

— Zer ikasi dozu, non? —itandu eban jakinguraz Renataren amak, ule azpian hazka egiteari itziz.

— Sekretua da, ama; nire urtebetetze egunera arte ezin dozu jakin...

— Baina... ez da ezer izango...? Beno, esan gura dot, edozer dala ere, amatxori gustatuko jakola, uste dot...

— Hui, bai ba! Orduan itziko deustazu?

— Aitari itantu behar geunskio, ez dozu uste?

— Ez, aitak badaki! —erantzun eban Renatak, bere gelarantz arineketan abiatuz—. Solfeoko ikas-

gaia prestatzera noa, ea ondo urteten deustan.

Doña Maribelek jakinminez pasatu eban bere alabatxoaren urtebetetzerako falta zan aste t'erdia. Ez alabeak, ez aitak ez eben txintik ere esaten.

— Ulertzen ez dodana da zergaitik zuri kontatu deustun eta niri ez! —lehertu eban gau baten doña Maribelek, senar-emazteak lotara joiazan unean.

— Ez, niri ez deust ezer esan —erantzun eban don Manolok.

— Eta orduan, zelan dakizu?!

— Beno ba... zera... Sekretua sekretua da, ezta?! Itxaron 21era arte eta jakingo dozu...

— Eta heldu zan martxoaren 21a, udabarriaren hasierea eta Renata Gutierrez Ariasen urtebetetze eguna.

Doña Maribel hain urduri ebilenez goiz haretan, bere alabatxo eta senarraren arteko sekreto ha bihurrikeriaren bat izango zalakoan, tekleatzean hiru bider erratu zituan kontuak supermerkatuan.

Arratsaldea heldu zan. Renataren urtebetetze jaia heldu zan. Gonbidatu guztiak heldu ziran etxera batek ere huts egin barik. Eta hasi zan paketeak zabaltzearen triskantzea, bazter guztiak betez koloretako paperez, lakioz eta opariz. Eta lehenengo astrapalea baretzen hasi zanean, arrats jaiari hasierea eman jakon, Renatak lau urte zituanetik eta gauzez ohartzeko ezaguera eukanetik egiten zan moduan: don Manolok, postariz jantzia, ateko txirrina jotzen eban. Umeak zabaltzen eutsan atea eta don Manolok, boltsa handi bat lepotik eskegita



ebala, itauntzen eban ea han bizi zan “Ranita” andereñoa.

— Renata —zuzentzen eban Renatak!

— Ah, bai, Renata! —erantzuten eban postariak, zorrotik ataraten eban gutun-azal handi bat irakurritz.

Eta umeak gutun-azala zabaltzen eban eta barruan zorion gutun maitekor bat egoten zan “Renataren lagunen” zerrenda luze batek izenpetua, honeen artean honako honeek: *Botadun katua, Edurnezuri, Superman, Txanogorritxo, Pinotxo, Simbad marinela, Loti ederra, Jostuntxo ausarta, Peter Pan, Banbi, Mari Errauskin, Mikey Mouse, Txanogorritxoren amama, Dumbo, Mowgli, Yogi bartzza, Aladino, Hiru txarritxoak, Zazpi ipotxak, 101 dalmatak, Ali-Baba eta berrogei lapurrak...*

Hona heltzean, beti gertatzen zan bardin:

— Berrogei lapurrak ere bai?! —itauntzen eban, harrituta, Renatak.

Eta don Manolok erantzuten eban: tira! Gaur, zure urtebetetzea dalako, zintzo bihurtu dira eta dagoaneko ez dira lapurrak.

— Eta bihar? —itauntzen eban bizkor-bizkor Renatak.

Une horretantxe doña Maribelek parte hartzen eban alkarrizketea desbideratuz eta kantak eta jolasak hasten ziran. Oraingoan, Renataren zazpigarren urtebetetzean, doña Maribelek esan eban:

— Ondo, ondo, ondo, ondo...! Orain, gonbidatu maiteok, jai honen protagonistek solfeoko ikasgai bat interpretatuko dau zuek guztiontzat, Musika Akademian hain ederto ikasiak dituan horreetako bat.

Nagusiak irribarre egin eben atseginez —eta batez ere izeko Katik— eta umeak alkarrari begiratu eutsien lurrikara bat edo sukaldaritzako plater

lehiaketa bat iragarri balitxake lez.

Renatak, zuhur, aurretik prestatua eban solfeo metodoa hartu, zabaldu, eta bere amak gertakari berezi haretarako erosi eutsan atrilaren gainean jarri eban; hiru aldiz urruma egin eztarria leuntzeko, esku eskumea okotzeraino jaso, isilean, lau denporako konpasa markatu, eta bapatean hasi zan ahots ondo tenplatuaz.

Do - mi - do - mi - sol - do - si - la - sol - fa - mi -  
do - mi sol - mi - sol - do - mi - re - do - si - la - sol -  
re - do - si - la - sol - si - la - do - si - la - si - sol - re -  
do - si la - sol - si - la - do - si - la - sol - sol - la - sol -  
la - si - sol - si - do - si - do - re - si - re - mi - re - mi -  
fa - re - si - sol - do...

Eskeini jakon nagusien txalo zaparradea, eta txikien txalo lotsati eta harrituaren omenaldia, Renatak burua pixka bat makurturik eskertu eban.

Beno, ba orain dator onena! —oihu egin eban umeak itzelezko pozaz.

Doña Maribelek begiak zerurantz jaso zituan errukia eskatuz lez.

— Zuek segi nasai amak prestatu dituan gauza guzti honeek jaten —jarraitu eban Renatak benetan urduri—, gu amenjesus baten prestatuko gara.

“Gu?”, itandu eban bere artean, gero eta larriago doña Maribelek. Eta ikustean, don Manolok, bere senarrak, eta bere koinatuak, don Agustinek batzarea izten ebela umeagaz batera, “huy, huy, huy,

huy, huy!” egin eban bere kolkorako; halere, urduritasuna disimulatu gurarik, ume eta nagusiak gonbidatzen zituan ospakizunerako prestatuak eukazan jaki guzti hareetatik jaten jarraitu eien: gusanitoak, kakauesak, opiltxoak, olibak eta beste hainbat gauza gozo.

Hiru minutu ere igaro baino lehen zabaldu zan barriro danak batuta egozan egongelako atea: don Agustin, Renataren osabea agertu zan kirol-praktikan (hartza baizen hanka uletsuak erakutsiz) eta koloretako xukadera bat idunean lotua, kapa modura.

— Jaun-andreok, neska-mutilok, handi eta txikiok!

Danak, izeko Kati milikiak eta Renataren ama harrituak izan ezik, harrerarik beroena egin eutsien don Agustini hain baldar ikustean eta entzutean.

— Orain ikusi ahal izango dozue —jarraitu eban honek pregoi ahotsez— munduko zirku ikuskizunik ausartena eta handiena! Ta-ta-taxaaan! Atsegin handiz aurkezten deusuedaz mundu osoan famatuak diran akrobatak: Manolo “Saltaria” —atea zabaldu eta hara non agertzen dan, jauzi batez, Renataren aita, bere anaiaren antzera jantzia—; Agustin “Saltokaria” (neu naz), eta... Renata “Txerpolaria”.

Txaloaldia eta bozkarioa gehitu egin baziran don Manolo eskenan agertzean, ez dago zertan esanik zelako iskanbilea sortu zan han Renata azaldu zanean. Zeru koloreko gonatxo bakar bat eukan, eta sorbaldan zirkuko trapezistek oparitu

eutsien tertziopelozko kapa gorria.

Doña Maribel bere begiei sinestu ezinik egoan hirukotearen aurrean. Igurtzi ere egin zituan guzti ha liluraren bat izango zalakoan.

Baina ez zan lilura!

—Ikustera zoazen zirku-ekitaldiak —jarraitu eban deklamatzan Agustin detektibeak— ez dau parerik munduan! Zer dinot munduan, unibertso osoan! Renata “Txerpolariak” hegaz egingo dau Manolo “Saltaria”ren sorbaldetatik Agustin “Saltokaria”ren sorbaldetara! Ta-ta-ta-txaaan!!

Gizon biak jarri dira belauniko, aurrez aurre bata besteagandik hiru bat metrotara. Renata, igon eta zutunik jarten da, tente soldadu bat lez, bere osaba Agustinen sorbaldetan.

—Ikuslego agurgarriari adierazo behar deusat —azaltzen dau honek— ekitaldia belauniko egingo dogula leku itxian eta sabai azpian gagozalako. Baina ikusgarritasuna eta arriskua zutunik egingo bagendu adinean handiak dira. Beraz ikuslego agurgarriari isiltasunik handiena eskatzen deusat artistak euren baitaratu daitezana.

Hamalau ume gonbidatuen begiak ez dabe ñir-ñirrik egiten. Arnaseari eutsiz dagoz. Doña Maribelen begiak ere ez dabe ñirñirrik egiten, ez dau arnasarik hartzen. Baina esku eskuman daukan gazta opiltxo lehertzeraino estutzen dau.

Don Agustinek makurtu dau apur bat gorputza. Okertu ditu bere hankak Renatak.

Bat..., bi..., eta... hale-hop!!



Umeak zuzen urten dau osabearen sorbaldatik, kapa gorriak airean distiratzan dauala, eta zehaztasunik handienaz doa aitaren sorbaldara, honek bizkor heltzen deutso oinetatik, eta bitartean neskatosa pozkarioz zutuntzen da besoak goruntz dituala.

Hareek txaloak, ha zaratea eta poza, eta ha la-

rrialdia doña Maribelek jasan ebana!

Baina pasatu da dana.

Renatak orain zazpi urte daukaz.

Irailean eskolan ikasturtea hasten danean, berak solfeoko bigarren mailea egingo dau aldi berean.

Eta beste urte bete igaroko da —bai azkar igarotzen dala denporea!— eta Renata, zortzigaz, hasiko da, azkenean, pianoa jotzen.

Renatak jadanik pianoa jotzen dau. Hau da: solfeo ikasten jarraitzen dau eta hasi da pianoa jotzen. Beno, izan gaitezaz zehatzak: eskolan dabil, solfeo emoten dau, pianoa jotzen dau eta...

### III. INGELESA IKASTEN DAU

— **W**hy do you study English?

— Because it is very good for traveling around the world.

Honeek izan ziran Renatak ikasi zituan lehenengo berbak.

— Begiratu, andereño, gustatuko litzakit nire alabeak, ezer baino lehen, itaun hau eta erantzun hau ikasi daizan —esan eutsan doña Maribelek ingeleseko irakasleari, klaseko lehenengo egunean, papertxo tolestu bat emonez—. Badakit Akademiako irakaskuntza metodoetan sartzea dala, baina mesedez ez eizu txartzat hartu, gurari soil bat baino ez da...

Maribelek berak ondo ikasi eban itauna —supermerkatuko ugazabaren semearen laguntzaz, ingeles Filologia ikasten ebalako Unibertsitatean— eta bota eutsan bere alabatxoari lehenengo egunean, Akademiatik itzultzean atetik agertu eta bapatean.

— Why do you study English, Renata?

Renatak begiak itxi zituan, ukabilak estutu barruratzeko eta erantzun eban, erdi totala:

— Because it is very good for traveling around the world.

— Aupa, alabatxo, zorionak zuri! —oihu egin eban doña Maribelek bere txikitxo besarkatuz—. Jakina ba oso garrantzitsua dala ingelesa ikastea munduan ibilteko! Eta zu asko ibiliko zara, ez da egia, alabatxo?

— Zergaitik, ama?

— Zergaitik? Lehenengo eta behin neska modernoak asko ibiltzen diralako. Baina batez ere, zu pianojole handia izango zarealako, eta pianojole handiak asko ibiltzen dira: gaur kontzertu bat emoten dabe Parisen, bihar Londresen, hurrengoan New Yorken.

— Baina pianoa jotzen dodan bitartean, ez dot ezer esan behar, ama, beraz ez dakit zertarako ikasten dodan ingelesa...

— Kontzertu aurre eta osterako, emakumea! Ez zara egongo mutu pianoa jotzen ez dozun bitartean, dinot nik! Berba egin behar dozu antolatzaileekin, zuri entzutera doazen pertsona inportanteekin... Ah, eta batez ere kazetariekin!

— Kazetariekin...?

— Jakina! Alkarrizketak, erreportaiak..., guzti hori egingo deutsue!

Hurrengo egunean, eskolan, pertsonaia famatuak alkarrizketak egiten jolastu eban bere lehengu-

sina Kasildagaz, ahoan aparatoa eroana, eta bere lagun Sinfinegaz (Serafin eban izena, baina "Sinfin" esaten eutsien). Etxera itzultzean, pozez zoraturik, kontatu eutsan, amari:

— Aaamatxo —oihu egin eban atea zeharkatzean—, atsedendian alkarrizketak egiten jolastu dogu, badakizu?!

Renatari batzuetan "aaamatxo" urteten eutsan amari deitzeko, horrela deitzen eutsalako don Manolok doña Maribeli txantxetan ebilenean.

— Ah, bai? —erantzun eban, maitakor eta politik, Renataren amak—. Eta zeuri egiten eutsuen alkarrizketea, alabatxo?

— Bai, ama. Kasilda kazetaria zan, "Sinfin" argazkilaria eta ni famatua nintzan.

— Pianista famatua?

— Ez, ama, "Zirko Mundial"eko txerpolari famatua.

Doña Maribel betoskoa zimurtu eta buruan bueltak emoten hasi zan bere alabatxoak txerpolarri izateko eukan obsesio horri.

Baina oraindino gehiago arduratu zan hainbeste aitatzan eban Loles nor zan jakitean: kalean eza-gutu eban neskatoa zan Renatak hainbestetan aitatzan eban adiskide handia.

— Baina jakin leiteke nor dan Loles hori, alaba? Lolesek hau eta Lolesek ha... aspaldian ez dozu beste konturirik!

— Auzoko ume bat da, ama.

— Baina zure eskolan dabil?

— Ez. Loles ez dabil inongo eskolan.

— Ez dabilela inongo eskolan?! Orduan zer egingen dau?!

— Ezer ere ez, ama, ez dau ezer egingen. Parke Rayado-ko zabuetan ibiltzen da beti.

— Beti?!

— Beno, han ez dagoanean, futbolean jolasten dihardu edo ahateen ondoren Rosaledan.

— Futbolean jolasten eta ahateen atzetik ibiltzen dala?!

Doña Maribelek hiru aitaren egin zituan, hiru bider esan eban “Jesus, María eta Jose”, hiru bider sartu eta urten eban logelatik jakin barik zergaitik sartzen eta urteten eban, eta itxaron eban hiru ordu lauren (arratsaldeko hiruretarako falta zan denporea zan eta) senarra etorri arte oso serio berba egiteko haregaz.

— Kaixor, aamatxo! —oihu egin eban don Manolok, sukaldean sartuz eta doña Maribel gerritik helduz.

— Itzi eizuz txantxak, Manu! —marmar egin eban Renataren amak.

(Zerbait larria gertatzen da, Manu esan deust!, pentsatu eban don Manolok irribarrea ezabatuz.)

— Zer gertatzen da, Maribel, txarto ibili zara supermerkatuan?

— Ez, ez jat ezer gertatu supermerkatuan. Ez naz erratu kontu baten ere!

— Orduan, zer gertatzen jatzu?

— Gertatzen dana, zure alaba Ranitak, edo, Re-



natak!, lagun bat egin dauala... lagun bat... bat ere komeni ez jakon lagun bat !

— Ah, bai?

— Bai, Manu, bai. Loles dau izena eta egun osoa jolasean pasatzen dau.

— Hori zorrea! —esan eban ahapeka don Manolok.



— Zer dinozu?

— Ez, ez, ezer ere ez. Ea ba ete dakigun nor dan ume hori.

— Ez, ez dakigu. Renatak ez daki nortzuk diran bere aita eta ama. Dakien bakarra Loles deritxola eta egun osoa Parke Rayado-n emoten dauala edo ahateen atzetik Rosaledan. Ikertu egin behar dogu, Manu.

— Ikertu?!

— Bai, ikertu, hori esan dot! Deitu oraintxe bertan zure anaia Agustini eta eskatu eiozu jakin daiala ondo norena dan ume hori, nortzuk dituan gurasoak eta zergaitik ez dabilen eskolan.

Don Manolok bizkarrak uzkurto zituan eta telefonoz deitu eutsan anaiari, detektibe pribatuari.

— Baina Loles zer? —itandu eban don Agustinek.

— Ah, ez jakiat, eta uste joat Ranitak ere ez dakiela.

— Baina jakingo jok, behintzat, zelakoa dan, horaila ala baltzarana dan, oreinak dituan...

Don Manolo joan zan jakitera bere alaba Renataren logelara. Baina ate ondora heltzean sikuan geratu zan. Zer entzuten zan barruan? Ez ete ziran hareek... zaunkak, benetako txakur zaunkak?

Joan zan emaztearen bila eta itzultzean biak belarria zorroztu eben.

— Ranitak txakurra dauka, ala? —esan eban don Manolok ahapeka. Baina itauna amaitu orduko zaunkea, bapatean, behi murrusa bihurtu zan.

Beno, edo txahal gaztearena hobeto. Murrusea, gainera “musika” soinuduna.

Maribelek bekokia zimurtu eban, brastakoan edegi eban atea eta sarreran geratu zan besoak azta. Renatak, zutunik atrilaren aurrean, “murrusa” egiten eban konpasa eroanez eskuaz.

— Qso polita, e? —deiardar egin eban Maribelek.

— Zer gertatzen da? Nire solfeo ikasgaia ikasten dihardut —erantzun eban Renatak.

— Zaunkaz eta murrusaka?!

— Horrelan politagoa da, ama, notena kalaka aspergarria da! Biharko hiru ariketa ditut, ezta? Ba bat txakurrarena eginez ikasten dot, bestea behiarena eginez eta hirugarrena igelarena eginez.

— Igela?! —hots egin eban, harrituta, don Manolok.

— Nahi dozu igelarena egitea, aita?! —hots egin eban, poz-pezik umeak. Eta erantzunik itxaron barrik, orria pasatu eutsan solfeo metodoari, esku eskumea jaso konpasa markatzeko eta “kro-kro” egiten hasi zan pentagramako kortxea eta semikortxe-ei jarraituz.

Doña Maribelek besoak gurutzatu zituan, buelta emon eta gelatik urten egin eban.

— Ume hau olgetaria da, Manu! —kexatu jakon senarrari oheratzeko orduan—. Gauzak ez baditu serioago hartzen, ez dau lortuko ezer!

— Zortzi urte ditu, Maribel, jolastea gustatzen jako ume guztiei lez...

— Baina jolasa jolasa da eta ikastea ikastea! Eta gauza bakoitza bere sasoian! Ulertu eragin behar jako berandu izan baino lehen! Eta zeuri, Manu, dagokizu hori, horretarako zara aita, hau da, autoritatea!

— Ondo dago, berba egingo deusat...

— Ah, eta befte gaufa fat! —eten eutsan doña Maribelek, bainugela atetik agertuz mutur guztiak dentrifikoz beterik zituala—. Jafin behaf da nof dan...

— Ez dot ezer ulertzen, Maribel...

Renataren amak ahoa urez garbitu eban eta barrero hasi zan:

— Renatak hainbeste aitatzen dauan Loles hori nor dan jakin behar dala. Deitu deusazu zure anaia Agustini?

— Bai, baina dinoanez ez badeusazu emoten datu gehiagó... Gainera, horrelako gauza baterako molestatu behar...

— Ideia hobego bat daukat! —oihu egin eban doña Maribelek—. Loles etxera gonbidatuko dogu Renatagaz jolasteko eta atarako deusazu...

— Aterako deusazu zer...? —itandu eutsan don Manolok harriturik.

— Ba... dana: nortzuk dituan gurasoak, zertan lan egiten daben, zergaitik ez dabilen eskolan...

— Ez dakit... iruditzen jat apur bat...

— Begira, Manu, gure alabearen ona beste danaren gainetik dago! Eta ez da pekatua itauntzea zure alabearen lagunari nortzuk diran bere guraso-



ak, dinot nik... Kontrakoa interes falta da, ez bada-kizu ere. Bihar bertan gonbidatuko dogu ume hori etxera alditxo baten jolastera.

— Jolastera? Alditxo bat? —itandu eban gizonak maltzurkeriaz—. Zein alditxo?

Maribelek ohean sartzen ziharduan kontuak

egiten zituan bitartean:

— Ea... bihar martitzena da, ezta? Renatak solfeoa dauka sei t'erdietatik zazpi t'erdietara eta gero egueneko pianoko ikasgaia prestatu behar dau. Gehi eskolako lanak...

— Martitzenean, ezer ere ez —esan eban don Manolok ahapean ahoa burkoaren kontra ebalá.

— Eguastenean... —jarraitu eban kalkulatzén Renataren amak—, ingelesa zazpietatik zortziatará...; etxera itzuli orduko, zortzi t'erdia dira... Oso berandu, ezin da izan. Beno, itxaron... seietan etorri leiteke, Renata eskolatik urteteán...

— Ez —erantzun eutsan labur senarrak.

— Ez? Etxera heltzen danetik seiak eta hogeian ingeleseko klasera urteten dozuen arte, zazpiak lauren gutxiagotan...

— Ezetz, Maribel, ezetz. Eguastenetan, seietatik zazpiak laurén gtxiagotara, umea eskolan geratzen da lorategi tailerreán, ala ahaztu egin jatzu? Zeuk apuntatu zenduan orain dala hilabete.

— Egia da, hau burua nirea... Ez dago txarto ume batek loreen barri jakitea, Manu, ba, loreak lantzeán, izpiritua ere lantzen dá!

— Ez, ez, nik ez dinot ezetzik. Hauxe besterik ez dinot: eguastenean ere Loles, Ranitaren laguna, ezin dogula etxera gonbidatu.

— Beno, ba egueneán etorriko dá; ez dá gertatzen ezer egun bat lehenago edo egun bat geroago izateagaitik...!

— Egueneán umeak pianoa dauka Kontser-

batorioan, maitea. Zazpietatik zortziatará hau ere, baina Kontserbatorioa lekutako puntan dagoanez eta ordu erdi joateko eta hiru ordu lauren itzultzeko behar izaten diranez —hau suposatuz trafikoa ondo dabilela—, Ranita ez dá etxeratuko, goiz jota, gitxi gorabehera bederatzia arte. Oraindino gelditzen bajako maparen bat marraztu edo problema- ren bat ebatzi beharra hurrengo egunerako...

Doña Maribelek, izaren azpian biratu eta bizkarrá emon eutsan gizonari.

— Ai, Manu, badirudi danari akatsak jartea gus- tätzen jatzula! Barikuan Renatak ingelesa besterik ez dauka sei t'erdietatik zazpi t'erdietara, beraz, zortzi- etan etorri daiteke ume hori apur baten jolastera.

Doña Maribel bapateán isildu egin zan pentsati: Ai, ez, demontrea, barikuan otorrinoagaz ordua hartua daukat ingelesa amaitzeán, belarria begiratu daion! Eta zapatu goizeán zapatak eroatera joan behar dogu biok, gaixoa ortozik dago eta! Astirik ez dogunez aste barruan...! Beno, barbarik ere ez gehiago: zapatu arratsaldeán gonbidatuko dogu ume hori... zelan deitzen dá?

— Loles.

— Hori, Loles, datorrela etxera, ados?

Don Manolo erdi-jezarri egin zan oheán gorpu- tzari ezkerreko ukondoaren gainean eutsiz:

— Zer esan dozu, Ranita otorrinoarengana ero- an behar dozula?

— Bai, Manu, hori esan dot; ahaztu egin jatan zuri esatea. Solfeoko irakasleak, don Candidok esan

deust badirudiela umeak ez dauala guztiz ondo entzuten, belarriak huts pixkaren bat egiten deutsala.

— Ez dauala ondo entzuten ala belarriak huts egiten deutsala, zer esan dau zehatz-mehatz?

— Ai, gizona, ez dakit, eta zer axola deutso?

— Ez, Maribel, ez da bardin. Ez badau ondo entzuten, ba... ez dau ondo entzuten eta medikua-rengana joan beharra dago, ados. Baina ez bada belarri onekoa..., hori ez dau konpontzen munduko otorrinorik onenak ere!

— Adierazo gura dozu —erantzun eutsan bapatean doña Maribelek, erdi-jezarriz bera ere— gure alabeak belarri txarra daukala musikarako?! Manu, gure alabearen bokazioaren aurka zagoz, bere pianista-karrera eragozten diharduzu! Historia errepikatu egiten da, ai, ai! —Renataren amak ukabilez lokiak estutu zituan—. Neuri ere oztopatu egin eustien arpajole-karrera, bai, baina ez dot itziko nire alabeari beste horrenbeste egiten! Nire alaba Renatak ez dau amaituko kobratzaile supermerkatu baten, nik lez! Ez, ez eta ez!

Zapatu arratsaldean etorri zan Renataren etxera Loles laguntzua.

— Zelan dozu izena, maitea? —itandu eutsan, irribarretsu, Maribelek.

— Dolores Sansegundo —erantzun eban umeak begietara arretaz begiratu—. Eta egia da zure senarra postaria dala? —itandu eban jarraian.

Don Manolok, nahiago izan eban arren, hasiera baten, bere emaztearen kalamatrikan parte ez har-

tzea, belarria erne eban eta Renataren gelan agertu zan berari buruz ziharduela entzutean.

— Beno, postaria baino gehiago da, badakizu? —erantzuten eban une horretan doña Maribelek—.

Baina, zergaitik itauntzen dozu, polit horrek?

— Ba aitak liburu bat irakurri deustalako: “Erregearen postaria”, eta erregearen berberaren gutun bat itxaro eban ume gaixo bati buruz da, pentsatu.

— Zure aitak horrelako liburu politak irakurten deusuz? —sartu zan Renataren aita.

— Jakina. Eta liburuan berba egiten daben pertsonaiak urtetean, nire aitak irakurtzen dau batek esaten dauana eta nik irakurtzen dot besteak esaten dauana.

— Eta zure amatxok? —itandu eban Maribelek, ahoskera eztiz.

— Lolesek ez dauka amarik —aurreratu zan Renata—. Kotxe istripu baten hil zan, ezta, Loles?

Doña Maribelek hasperen bat ito eta gizonari begiratu eutsan, ikaratuta, laguntza eske lez. Don Manolok bizkarrak uzurtu eta emazteari keinu bat egin eutsan umeak bakarrik izteko adierazoz.

— Beno, Loles —esan eban, atea zabalduz—, gu bagoaz, zuek jolastu nasai Renatak eta biok, ados?

Don Manolok besotik heldu eutsan emazteari, baina honek, atean egoala, ezin izan eutsan eutsi itaun haxe egiteko eukan gogoari; itaun hori presatua eukalako alabearen laguntzua gonbidatzea pentsatu ebanetik:





— Zu, Loles, polita, eta zure aitag, hain ipuin politak irakurten deitsuzan horrek, zer egiten dau?, zertan lan egiten dauan, esan gura dot.

— Nire aita teologoa da —erantzun eban umeak bere berbakideari begiratu ere egin barik, zarata baten hurreratu zalako Renatak jostailuak eukazan

arasarantz.

Maribeli ia ia ondoezak emon eutsan. Ume hau ustekabe-kutxea da: umezurtza amaren aldetik, ez dabil eskolan eta aita teologoa dau!

— Teologo esan dau, Manu? —itandu eutsan Renataren amak gizonari biak pasiloan egozala—. Baina teologoak ez dira ba abadeak? Ai, Manu, Manu, azkenean ume hau abaderen baten alabea izango da!

Don Manolok esan eutsan ez aterateko azkarre- gi ondoriorik, baina doña Maribelek denporarik galdu barik telefoneatu eutsan bere koinatu Agustini, detektibeari, eta ia ordubete pasatu eban haregaz berbetan oso urduri.

Ia ordubete ibili ziran jolasten Loles eta Renata ere azken honen gelan. Izan ere, biak egongelan aurkeztu ziranean, doña Maribelek arrapaladan moztu behar izan eban telefonoz ekarren autua.

— Eten beharra daukat, Agustin —esan eban ahapeka—, gero deituko deitsut barriro...

— Zer, jolastu dozue nahikoa?

— Ez, bai zera! —erantzuten dau Renatak—. Zera... Lolesek dino ea kalera jaitsi gaithekezan olgetara, dibertituagoa dala...

— Kalera?! —egin eben batera, esaldia amaitzen itzi barik, don Manolok eta doña Maribelek—. Kalera dinozue? —jarraitu eban Renataren amak berak bakarrik—. Kalea oso arriskutsua da zuen adineko umeentzat; ez, ez, ez, kalera pentsatu ere ez!

Eta neskato biak Renataren gelan sartuta jarraitu



behar izan eben. Baina Lolesek ezin eban gehiago ipurdia geldi euki. Partxisean, kartetan, altxorren bi-dean eta dominoan jolastu eben. Dominoan Lolesek erakutsi behar izan eutsan Renatari, aurreko Gabonetan Olentzerok ekarri eutsanetik ez ebalako euki gure laguntxoak astirik ez olgetan nork erakutsirik. Renatarentzat zoragarria eta pozgarria izan zan!

— Ez dituzu entzuten kolpe horreek, Manu? — itandu eban bapatean doña Maribelek—. Zaldi-ostikadak dirudie!

Ez, ez ziran zaldi-ostikadak, jakina. Sokasaltoan ebilzan neskato bien jauzi eta oin-hots neurtuak ziran! Zelan konpondu ziran bi besterik ez izanik, sokasaltorako gitxienez hiru behar dira eta? Lolesek jolas mordoa ekian partehartzaille bat, bi, hiru, lau, bost eta gehiagorentzat ere; baekian hiru jokalaria edo gehiagorentzako jolasak bakarrarentzat edo bi-arentzat moldatzen, kasu honetan lez: lotu eben sokearen mutur bat atearen kisketera, umeatariko batek eragiten eutsan beste muturretik eta bigarrenek saltoak egiten zituan abesti baten erritmoari jarraituz.

Eta gogoak emon eutsen jauzi guztiak egiten nekatu ziranean, pasilora urten eben, baldosa handi zuri eta baltzez jantzia zalako, eta txingoka jolasten hasi ziran don Manolok itzi eutsen zigarro pakete huts bategaz.

— Pasilo hau benetan aproposa da honetarako —esan eban Lolesek—. Zure etxera sartu orduko-xe konturatu naz.

Gaueko bederatziatan, doña Maribelek, apur bat gogaitua ume bien zarateagaz, itandu eutsan Renataren laguntxoari:

— Ez jatzu itxaroten egongo aita?

— Oraindino goiz da —erantzun eban umeak—. Berak badaki hemen nabilela jolasean.

Bederatziak eta laurenetan, doña Maribelek barriro ekin eutsan:

— Ez dozu uste jadanik berandu samar dala?

— Ez, ez andrea —erantzun eban txikiak, pasiloko hiru baldosa txingoka igaroz.

Bederatzi t'erdietan doña Maribelek barriro bota eutsan itauna, eta gero hamarrak lauren gutxiagotan, eta hamarretan gogor jarri zan:

— Hamarrak dira, umeak, afaltzeko eta lo egiteko ordua da.

Eta Lolesi lauki gorri eta berdedun berokia eskeini eutsan.

Renataren lagunak agurtu zituan don Manolo eta doña Maribel mosu banaz eta, atean egoala, itandu eban ea itzuli eitekean beste baten jolastera.

Don Manolo erantzutera joian, baina emaztearen ukabilkada batek galazo eutsan:

— Ba... begira, polita —esan eban doña Maribelek guzurrezko irribarre bategaz eta berbak asko luzatuz—: Kontua da Renata oso lanpeturik dagoala, badakizu? Eskolara doa goizean eta arratsaldean..., gero pianoa jotzen dau..., ingelesa ikasten dau... eta... etabar, etabar, etabar.

#### IV. ETA ETABAR...

**D**oña Maribelek aitatu eban lehenengo “etabarra” hilabete batzuk geroago heldu zan. Esan gura dot aurreko kapitulua amaitu dan gauean Renata eskolara joaten zan, bai; astean behin lorazaintza tailerrean geratzen zan klaseak amaitu ondoren, bai; pianoa joten eban, bai; ingelesa ikasten eban, bai; baina ez eban beste “etabar” gehiagorik egiten. Hiru etabarretako lehenengoa gimnasia erritmikoa ikasten hastea izan zan —ala praktikatzea esaten da?—. Badakizue nork ebatzi eban?

— Amak!

— Ez. Beno, bai baina ez.

Azaltzera noa. Doña Maribelek apuntatu eban umea Gimnasia Erritmikoko udal eskolan, baina ideia izeko Katik izan eban —markesaren alabea baino pinpirinagoa zanak—, hain zuzen ere Renatak urteak bete zituan eguneann bertan.

— Begira, Kati —doña Maribelek kexaz konta-



tzen eutsan bere koinateari sukaldean, umeak egongelan, zarata baten, jaia ospatzen egozan bitartean—, nire alaba hau gero eta gehiago dabil jolasten eta gitxiago... gitxiago... Bederatzi urte bete ditu gaur, ezta?! Ba zer uste dozu egin ebalá pianoagaz joan dan astean?

— Ai, Isabelita, zer egin eban, ez nagizu ikaratu!

— Tekla zuri guztiak pintatu dominoko fitxak lez!

— Teklak dominoko fitxak lez...?

— Bai, Kati, bai. Hartu eban errotuladore bat eta puntutxuak jarteari ekin eutsan tekla zurietan, bakoitza dominoko fitxa bat balitz lez. Eta esan euskun aitari eta biori horrelan atseginagoa zala kontzerbatorioko ikasgaietan trebatzea! Konturutzen zara, Kati? Edozertan ari dala ere, jolasa besterik ez dauka buruan. Badakizu zelan zeharkatzen dauan etxeko pasiloa, sasoi batetik hona?

— Etxeko pasiloa, Isabelita...?

— Bai, Kati, pasiloa, hor kanpoko. Ba begira: bardin da gelatik sukaldera joan, zein sukaldetik egongelara joan. Renatak beti zeharkatzen dau pasiloa baldosarik baldosa txingoka.

— Baldosarik baldosa, Isabelita...?

— Bai, Kati, txingoka baldosarik baldosa, txinxirrikan olgauko baleu lez, ulertzen?

Baina gauza bat esango deusut: Badakizu nork daukan guzti honen errua? Bere lagun Lolesek.

— Lolitak, koletadun ume horrek...

— Lolita, ez, Kati, zelako mania zurea dana



“ita”n amaitzeko! Loles dau izena, eta ondo jatorko... hobeto ezin! Berak erakutsi eutsan Renatari dominoan jokatzen eta berak asmatu eban txingoka jolasa pasiloko baldosa zuri eta baltzetan. Baina hori ez da txarrena, Kati.

— Ah, ez, Isabelita? Oraindino beste zerbait txar-

rragoa ere bai?

— Orain futbolean jokatu gura dau!

— Nork?

— Nor izango da ba! Renatak!

— Jesus, Maria eta Jose! Natik futbolean jokatu gura dauala? (Gogoratu bei irakurleak izeko Katik, aitaren aldeko aitita-amamekin batera, Nati deitzen eutsala Renatari, finago eta dotoreago zala eritzirik.)

— Bere lagun Lolesek futbolean jokatzen dauanez, berak ere futbolean jokatu gura dau!

— Baina ez deusazu esan futbola ez dala ego-kia... andereño batentzat?

— Jakina, esan deusadala! Baina aitak ez deus garrantzirik emoten: esaten dau hori matxismoa dala, gero emakumeak kexaz gagozala umetandik bultzatzen gaituelako panpina eta trapuekin jolastera.

— Ai, ai, ai, Manolo hau...! Eta esaidazu gauza bat, Isabelita: Ez dozu pentsatu Nati aldentzea laguntxo horren eraginpetik?

— Hui, zer dinozu! Ezinezkoa, Kati, ezinezkoa. Loles Renataren lagunik onena bihurtu da, berak ere autortzen dau. Eta egia esateko ia ez dabe alkar ikusten, begira, Renata oso lanpeturik dagoalako, baina, ai amatxo, liluratuta dauka!

— Ikasgela berberean ete dabiz?

— Ah, baina ez deusut esan? Loles ez dabil ikastolan!

— Ez dabilela ikastolan?! Piper egiten dau ala?!

— Ez, ez, ez dago matrikulatuta inongo ikastolan.

— Baina...!

— Berak esan deustanaren arabera, aitak gaeuz emoten deus eskolea, ordubete edo, baina egun osoa jolasean pasatzen dau umeak, begira.

— Ai, Isabelita, baina hori ikaragarria da! Eta nor da aita...?

Doña Maribelek kontatu eutsan izeko Katiri Lolesek ez eukala amarik, aita teologoa zala eta osaba Agustin, detektibe pribatua familia bitxi horri buruzko xehetasun gehiago ikertzen ebilela. Izeko Katik mila bat aitaren egin zituan. Edo gehiago! Eta azkenean bere aholkua bota eban:

— Badakizu zer egingo neukean nik Nati aldentzeko futbolerako zaletasun horretatik? Iharduketa fisikoren bat egiten jarriko neuke, bera lako andereño batentzat egokiago dan zerbait. Adibidez... gimnasia erritmikoa, orain oso modan dago. Ariketa bat baloiagaz ere egiten da, futbolean lez, esaiozu hori umeari.

— Doña Maribelek ez eban birritan errepikatu beharrik izan. Urtebetetzetik hilabetera, hau da, apirilaren amaieran, Renatak gimnasia erritmikoko ikastaldiak hasi zituan udal polikiroldegian. Astean birritan: astelehenetan eta birikuetan arratsaldeko zortzietan.

Orain bai ez jakola libre geratzen Renatari zapa-tuak eta domekak besterik! Dana dala, libre, erabat libre esaten dana, nahi eban moduan erabilteko,

ez, aste amaierarako beti egoalako solfeoko ariketaren bat landu beharra, pianoko ariketa zailagoren bat berrikusteko, ingeleseko berbaren batzuk edo eskolako lanen bat astelehenerako burutu beharrekoa. Zapatu goizetan, behintzat, Renatak beti eukan lanen bat amaitzeko, zerbait egiteko, tira! Beti. Eta batzuetan arratsaldean ere bai, batez ere ama doña Maribel, etxera poz-pozik eta oihuka zarataka heldu zen egunetik:


— Lortu dot, lortu dot!

— Zer da lortu dozuna, amatxo? —itandu eban, irribarrez, don Manolok.

— Filarmonika Alkarteko bazkide egitea, begira zeinen pozgarria, hain gatxa izanik sartzea! Mentxu Fernandezek deitu deust gaur goizean supermerkatuara, badakizu?, eta bere lagun diran senar-emazte batzuk bazkidetza iztera doazelako barria emon deust; beraz, segundo bat galdu barik arineketan joan naz plaza biak lortzera. Renatagaitik egin dot, badakizu? Jadanik pianoko bigarren mailan dago eta komeni jako kontzertuak zuzenean entzutea. Azken baten zapatu bi besterik ez dira hilean, gainera goizez.

Azken baten zapatu bi hilean eta goizez: horrek esan gura eban zapatu bi horreetan Renatari aurreko asteko ezer amaitzeko geratzen bajakon, arratsaldez amaitu beharko ebala.

Renata kalera jolastera joan eiteken egun bakarra domeka goiza zan. Pertsona helduren batek lagunduta, jakina. Aitak eroaten eban San Joan par-



kera, uriko parkerik handienera. Don Manolo jertzaren zan egunkaria irakurten eta Renatak nekagaitz jolasten eban lagunekin. Eta nekagaitz esaten dot ez zalako geldi egoten segundo bat esanda bera ere. Batez ere Lolesen adiskide egin zenetik.

Loles benetako zurrunbiloa zan!

— Guzurra dirudi ume honek aste osoa gelditu barik olgetan emotea... —pentsatzen eban don Manolok. Eta arrazoiz, ze mugitzen ikusita, pentsatu eitekean esku eta hanka lotuta euki ebela hainbat egunetan.

Eta Lolesek inguruko guztiak kutsatzen zituan. Gehienetan honeek izaten ziran: Renata, Kasilda lehengusinea, ahoan aparatoa eukana haginak zuzentzeko; Rafa lehengusua, pekaztoa; Serafin Lopez (“Sinfin” lagunentzat) eta Patxi Gordo, arkatxat bat baino argalagoa zana, abizen hori eukirik ere.

— Jaungoikoa adarjolea da —esaten eban Lolesek—. Patxi jaio baino lehenagotik baekien Gordo abizena (lodia) izan behar ebala eta argal-argala sortu eban halere. Ja, ja, ja!

Lolesek barre egiten ebanean, bazirudien eguzkiak gehiagó distiratzen ebala.

Lolesek Jaungoikoa sarritan aitatzen eban. Eta beti... zelan esango neuke nik?, era maitakorrean, konfidantza handiko norbaitez berba egingo baleu lez.

Euria egiten ebanean, esaten eban: “Norbaitek barri txarra eman deutso Jaungoikoari eta horrexegaitik negarrez dago”. Eta haize zakarrak joteneanean: “Gaur Jaungoikoaren urtebetetze eguna da eta tartako kandlei putz egiten dihardu bere indar guztiaz!”

Nork esan deusuz zuri gauza guzti horreek? —itandu eutsan egun baten Renataren aitak.

— Nire amak esaten zituan eta orain nire aitak esaten ditu. Aitak errepikatzen ditu orain amak hil baino lehen esaten zituan gauza asko.

Euria bota ahala zan domeka baten, parkera joateko girorik ez egoanez, Renataren lagunak honen etxera etorri ziran olgetara. Eta holakoetan doña Maribelek ez eban galtzen Loles eta bere... bere aita misteriotsuari buruz gehiago ikertzeko aukerarik; azken honi buruz, koinatu Agustinek, detektibe pribatuak, oraindino ez eutsalako zehaztasun askorik emon.

Umeak Renataren logelan olgetan ebilzan eta doña Maribelek belarria erne eukan sukaldean ebilen bitartean. Bapatean entzun eban Lolesek hone-la inoala:

— Konturatu zarie ingelesez “Jaungoikoa” “ona” lez idazten dala, baina “o” bat gitxiagogaz?

— Ez dot ulertzen zer esan gura dozun —esan eban Renatak.

— Ba begira: “Ona” ingelesez “good” idazten da, ezta? Eta Jaungoikoa bardin idazten da, baina “o” bigaz barik “o” bakar bategaz: “God”. Badakizue zergaitik? Ba...

Doña Maribelek ezin eban jasan ezer esan barik eta bapatean sartu zan Lolesen arrazonamendua etenaz.

Baina ingelesez ere badakizu, Loles, pollit horreek? —oihu egin eban inoiz baino bihotz zabalago.

— Bai, andrea —erantzun eban umeak, hainbesteko poza ulertu barik—, aitak irakasten deust.

Doña Maribelek ordutik aurrera ez eban hain begi txarrez ikusi bere alaba Renatak Lolesekin eukan adiskidetasuna. Ez zan eskolara joaten, egun osoa jolasten emoten baina... baina ingelesa ere baekian! Eta, beraz, praktikatzen lagun eikion bere alabatxoari jolasten eben bitartean.

—Jolasten dogun bitartean?! —oihu egin eben ume biak Renataren amaren proposamenaren aurrean.

Eta domeka haretan jaramon egin eutsien, bai, ez gitxiestearren, baina egia esateko laster ahaztu jaken. Eta gehiago parkean jolastean. Ingelesez berba egiteko egozan ba eurak parkeko mila bidezidor, pergola, ibilbide eta lore-sailetan arineketa egiten ebenean! Kubika jolasten eben, txingoka lasterketak egiten zituen, labantokietan eta zabuetan emoten ebezan orduak eta orduak.

Baina olgetan gailena, duda barik, txirrindola lasterketa handia izan zan! Txirrindola lasterketeak hauts handia harrotu eban! Parke osoa dantzan jarri zan txirrindola lasterketeagaz, zuhaitzak ere arineketa egiten ebela zirudian, ene, ha astrapalea jarri zana!

Eta dana hasi zan txirrindola lasterketearen aurreko domekan. Loles agertu zan parkean uztai biribil bategaz eta tresna luze bat... sarde edo hortz biko urkulu itxurea eukanagaz.

— Eta hori zer da? —itandu eban Sinfinek.

— Ba txirrindolea, ez dozu ikusten ala? —erantzun eban Lolesek.

— Ikusten dot txirrindola dana. Baina, zertarako balio dau?

—Jolasteko. Girten honegaz erabiltzen da, ikusten dozu?

Txirrindolea urkuluko hortz bien artean sartzen da eta biraka eroaten da. Honelan, begira.

Eta Lolesek txirrindolea biraka eroan eban ibilbidetan zehar. Lagun guztiak aho zabalik geratu ziran.

— Oso gatxa da? —itandu eban Patxi Gordok, argalak.

— Ez, eutsi, egizu aprobea.

Probatu eban Patxi Gordok eta probatu eban lagun talde osoak. Eta baita ikuskizunaren inguruan batu ziran beste mutil batzuk ere ibili ziran txirrindolea biraka eroaten. Eta danak geratu ziran asmakari haretaz liluraturik.

Orduantxe proposatu eban Lolesek lasterketa handia.

— Zergaitik ez dogu ekarten danok txirrindola bana datorren domekan, lasterketa bat egiteko?

— Eta nondik atara behar dogu? —itandu eban Sinfinek.


— Ah, moldatu daitela bakoitza! —erantzun eban Lolesek.

Eta bai moldatu ere!

Hurrengo domekan hamar txirrindola alkartu ziran San Juan Parkean. Hamar. Bakoitzak zelan lortu eban azaltzeak kapitulu bereizi bat mereziko leuke. Batzuk euren aita edo amagaz uriko jostailudenda guztiak bisitatu ebezan. Marisa Ruizi, ulean



beti lakio handi bategaz ibiltzen zan neska ule gorriari, bere osaba-aititak egin eutsan. Eta Renatak egurrezko bat lortu eban Charamileros kaleko aintzinaketari baten dendan. Bere aitak, don Manolok, gorri distiratsuz pintatu eutsan. Eta berak egin eutsan urkulua burdinazko barila luze bategaz, zurezko



esku-leku eta guzti. Zeren don Manolok benetako maisutasunez erabiltzen eban txirrindolea umetan, bere alaba Renatari azaldu eutsanaren arabera!

Dana dala, parkean txirrindolak batzeak ikusmin itzela sortu eban, sekula ezagutu ez zana. Nagusi eta gazte batuz joan ziran gure lagun taldearen



inguruan. Umeentzat ha gauza barri-barria zan bitartean, nagusiak, euren haurtzaroa gogoratu, oso animaturik ziharduen berbetan —don Manolo bere alabeagaz lantxe— sasoi baten egindako txirindola-lasterketa liluragarriaz.

Eta hain zuzen ere txirindola-lasterketea izan zan Lolesek eta honen lagunak antolatu ebena.

Lehenengo eta behin saioaldi bat, jakina. Ikasi beharra egoan asmakari ha halako trebetasun bategaz erabilten. Pertsona helduen artean bat baino gehiago agertu ziran prest, harro gainera, gaztetxo-ei erakusteko. Hiru urtetako lobatxoak eskutik hartuta eroan aitita batek Patxi Gordori —argalari— eskatu eutsan jostailua eta danak aho zabalik itzi zituan benetako zirkuko erakustaldia eskainiz. Hartu eban girtena eta... aupa!, airera bota eban ez dakit zelan eta biraka jarri eban parkeko zurezko jazarleku baten gainean. Ikusleen txaloak hain gartsuak izan ziranez aitona behin baino gehiagotan agurtu behar izan eban. Haren lobatxoak platerak lako begi handiak zabaltzen zituan eta berak ere burua makurtzen eban aititak lez.

Lasterketa handia hamabi t'erdia inguruan hasi zan. Helmugea, erdiko urmaelaren ondoan egoen eta Renataren aita izan zan urteerea emoteko arduraduna. Hamar partehartzaileak txirindoleari eusten eutsien ezkerreko eskuaz eta eskuman kirtena eukien. Hamarrak ez, bederatzik, ze Rafa ezkertia zan eta tramankuluak besteengandik alderantziz erabilten zituan.

— Bat, bi... eta hiru!

Jaisten dau, don Manolok, bapatean, goian eukan zapia, eta hamar txirindolak hasten dira biraka. Lehenengo zatia berrogeita hamar metrotako ibilbide zuzen bat da. Publikoak, ibilbide ertzetik, aupa eta txalo dihardu. Laster gailentzen da txandal berdedun mutiko bat, baina Lolesen txirindolak orpoz-orpo jarraitzen deutso. Ezkerrerantz doa bidea eta bihurgunean lehenengo istripua gertatu da. Hiru txirindola trabatu dira, honeen artean Kasildarena, Renataren lehengusinearena.

Zirkuitoa parkeari itzuli bi emotea da. Hiru talde egin dira. Aurrean doaz Loles eta lau mutil, euren artean Rafa, ezkerrez gidatzen dauana. Hamar metrora, Patxi Gordo, Renata eta Sinfin. Eta atzean, istripua izan dabenak: Kasilda, mutil loditxo bat eta ulean lakio handia daukan neskatoa.

Ibilaldiaren erritmoa gorantz doa, paseoan dabilen jendea begiratzeraz eta lehiakideak txalotzera hurreratzen da.

Renata eta Sinfin bizkortu eta lasterketa-buruan jarri dira. Loles zeharkatu jako trebezia mutil hanka-luze bati eta hau, txirindolearen kontrola galduz petunia arlo batera sartu da. Lolesek harritzeko trebetasunaz erabilten dau jostailua. Ikustekoa da zelan hartzen dauan parkean dagoan ibilbide nagusiko bihurgune handia: txirindolea ia etzunda doa, laban egin behar dauala emoten dau, guztiz jausiko dala, ai, baina ez, Lolesek barriz tenteazoten dau, sorginkeriaz lez, eta tximistea baizen bizkor doa



etorbide zabalean aurrera! Hur, Rafa eta Sinfín ondoan jarri jakoz. Gero Renata eta mutil bi. Lakio handiko neskatoaren txirrintolea berriro trabatu da bihurgunean potoloaren eta Kasildaren txirrintolekaz Lasterketari danak orain ibilbide nagusian dira arineketan. Gero eta publiko gehiago dago bide er-tzetan. Lasterketea gori-gori dago! Renatak indarra hartzen dau, bere egurrezko txirrintola gorria zu-rrunbilo baten moduan doa, sasoiatsu sentitzen da, begiradea jaso eta Loles ikusi dau urrun, ha harra-patzeko erabagia hartu dau!, itzela litzateke lagun biak batera sartzea helmugan, benetan itzela!

Jadanik igaro dira lasterketa buruan doazen txi-rrintolak urmaelaren ondoko lerrotik. Eta hurren-goak. Eta azkenak. Lehenengo itzulia amaitu da.

Renata izerdi patsetan doa. Eta Loles izerdi pa-tsetan doa. Eta Kasilda izerdi patsetan doa. Eta Sin-fín eta Rafa eta Patxi Gordo, argala, izerdi patsetan doaz. Baina erritmoa ez doa motelduz. Hamar txi-rrintolak hegan balebilz lez doaz parkean zehar. Hegaz egingo balebe lez? Lolesen txirrintoleak, bapatean, topo egiten dau, urtenda dagoan zu-haitz-sustrai bategaz, eta airean bost metro baino gehiagoko jauzi itzel bat eginez hegan egin dau. Lurrera jausi da, badirudi oreka galtzera doala, bai-na Lolesek lortu du jauzi baino lehen harrapatzea eta parke osoa txalo bero baten lehertu da. Txi-rrintola bi lasterketa-buruan, txirrintola bat solte hamar metrora, eta pelotoia. Horrela doa lasterke-tea bigarrenez parkeko ibilbide nagusitik igarotean.

Emozioa gori-gorian dago. Atzealdeko zazpiak txi-rrintola bakartia harrapatu dabe eta zurrumbilo ba-ten moduan abiatu dira ihes egindako bien ehizan. Lortuko ete dute? Ihes egindakoak Loles eta Patxi Gordo dira. Patxik betondoa zimurtua daroa eta txi-rrintoleari begiratzen deutso pentsamenduagaz bultzatuko baleu lez. Lolesek, alderantziz, metro batzuk aurrerago begiratzen dau eta atzerantz ere bai nohizbehinka, jarraitzaileei zenbateko aldea kendu deutesen egiaztatzeko.

— Baina hor bertan datoz eta! —dino ahapeka, asalaturik, pelotoia hantxe bertan dauala ikustean. Eta une horretan, Renatak taldetik urten dau jauzi bat eginez. Patxi Gordori aurea hartu deutso, irris-tadan ikutuz ezkerreko besoan, eta bere lagun Lolesen alboan jarri da. Lolesek, ikustean, pozezko irribarrea egin deutso. Hogeita hamar metro eskas falta dira helmugarako.

— Hori don eta, Renata, lasterketea heurea don! —xurxulatzen deutso Lolesek.

— Eta heuk? —itauntzen dau Renatak, ahots hari bategaz.

Lolesek ez dau erantzun. Baina bere lagunaren atzean jarri da eta zigi-zagaka hasi da txirrintolea-gaz, horrelan galazoz pelotoiari Renatari aurea hartzea edo harrapatzea.

— Horrek ez dau balio! —oihukatzen dabe ba-tera lasterketari bi edo hiruk.

— Estrategia estrategia da! —erantzuten dau Lo-lesek oihu batean. Baina Lolesen “estrategiak” pe-

lotoiko beste zortzien amorrua piztu dau, eta kontrol barik oldartu dira lagun bien ehizara. Eta benetan kontrol barik, benetan! Ikusi ere ez dabe egiten Renataren aita helmugan irabazlearen sarrerea markatzen zapiagaz eta burrundan eroan dabe lurrera botaz...

Eh, eh, eh!, zer dinot lurrera, urmaeleko uretan amaitu dau gure don Manolok, “uztailariak” egin deusien larrapasta eta bultzadagaitik!

Urmaeleko ahateak asaldatu egin dira, umeak asaldatu, udaltzainak asaldatu, eta ederto kostata atera dabe don Manolo blai eginda eta itzelezko izu aurpegiaz.

Renataren aitak bustialdiagaz pulmoniarik harapatu ebanik ez dogu jakin, baina baditugu Renatak gau horretan, txirrindola lasterketearen ostean, arineketan egiten hartu eban astinaldiaren ostean, izerdituaren ostean eta garaipenaren ondorizko zaratearen ostean (ze igerriko zeuntsan gure laguna izan zala irabazle), gau haretan, dinot, lorik sakonena egin ebal, zerraldo egin ebal lo. Ah, eta geldi-geldi hilda lez. Geldi-geldi, hilda lez?! Hori esan dot. Eta begira zergaitik: Izan ere garai batetik hona, ia gauero, Renata ohetik jagi egiten zan, ames-ibiltari, eta olgetan hasten zan. Olgetan? Olgetan. Txingoka olgetan pasiloan, partxisean, hiru lerroan, sokasaltoan, edozertan. Ah, eta papiroflexia praktikatzen kontrol barik! Eta gurasoak, horregaitik, psikologoarengana eroatea erabagi eben. Psikologoak, gizon artatsu eta behi bat besoetan



baizen astunak, esan eban sendabide bat jarraitu behar zala. Eta sendabidea astean hiru sesiokoa zan eta sesio bakoitza ordu betekoa. Astelehen, eguasten eta barikuetan, zeraren ostean: eskolearen ostean, etxeko lanen ostean, solfeoaren ostean, ingelesaren ostean, pianoaren ostean, etabarren ostean...

## V. ETABAR...

**R**enataren lehen etabarra gimnasia erritmikoa izan bazan —astelehen eta bariku arratsaldeko zortzietan—, bigarren etabarra irakurlearen auke-  
ran geratzen da: edo zapatuko kontzertuak, edo as-  
telehen, eguasten eta barikuetako psikologoaren  
sesioak. Ni neu bigarrenaren aldekoa naz. Eta ez  
Mozart edo Falla gustatzen ez jatazalako, baina psi-  
kologoarenak... Huy, psikologoarena, psikologoa-  
rena mataza handiko etabarra izan zan.

Gurasoak eroan eben Renata psikologoarenga-  
na, sasoi batetik hona, ames-ibiltari bihurtu zalako.  
Gauetan jagi eta jolasteari ekiten eutsan. Ah, eta  
papiroflexia kontrol barik praktikatzeari. Kontrol  
barik esaten dot, hasi eta ez zala geratzen, tira.

— Bai. Eta papiroflexia?

Papiroflexia? Niri adarra joten ala, ondotxo da-  
kizu zuk zer esan nahi duan papiroflexiak!

Baina begira: arraroena ez zan Renata ohetik ja-

gitea, ames-ibiltari, eta paperezko txoritxo, edo errotatxo, edo itsasuntzi, edo hegazkin, edo kape-latxo, edo beste edozein figura edo abere egiteari ekitea, orduetan eta orduetan; benetan arraroa, ez esatearren misterioitsua, zera zan: Renatak, itzarrik, ez jakitea horrelako figurak zelan egiten ziran! Ez ekian egiten ez txoritxorik, ez itsasuntzirik, ez ezer!

— Eta lotan bai?!

Lotan benetan gauza ikusgarriak egiten zituan! Eta piloa! Psikologoagana egin eben lehenengo bisitan, zenbat paperezko figura uste dozu eroan zituela ikusi eizan? Ehun eta hamazazpi! Eta zenbat gauetan uste dozu egin zituala Renatak? Hirutan!

— Sinestezina!

Sinestezina? Ba psikologoa ez zan batera harritu horregaitik. Geratu zen bost bat minutu sabaiari begira, beste bost bat minutu adi-adi Renatari begira, eta azkenik segidan bota eban honakoa izan eite-kela “zenbait gabetasun ludiko-motrizen ondorizko konpentsazio oniriko subkontzientea” eta sendabi-dea behar ebala. Eta nasai-nasai geratu zan. Argi dago psikologoak ez dituala ezerk ere ikarutzen. Izan ere, Renatarena sinestezina bazan, zuk ondo esan dozun lez, zer esango deustazu Serafin Lopezen kasuaz. Bai, gizona, Serafin, Sinfin, Renataren laguna...

— Txirindola lasterketan parte hartu ebana, ezta?

Horixe bera! Ba Sinfin ere psikologoagana eronan eben bere gurasoak, ze... ez dozu sinestuko!



Ostikadak emoten ebilelako han-hor-hemen, mundu guztiari! Gizarte-irakasleari ere emon eutsan ostikada bat ipurdian! Entzuten dozun moduan. Eta hain zuzen ere ustekabe hau zala eta Sinfinen gurasoak kezkatzen hasi ziran eta psikologoagana eroatea erabagi eben.

Sinfin, gainera, mutil arduratsua zan eta on hutsa. Ikastuna, eratsua, saiatua, esanekoa eta adeitsua irakasleekaz, ikaskide ona... Zelan eitekean hain... hain txarto portatzea, ez esatearren trakets?

Psikologoak begiratu eban hamar bat minututan sabaira, gero begiratu eutsan beste bost bat minututan Sinfin gizajoari —gorri-gorri semaforo baten moduan jarri zan hau eta txistua irunsten abia da handiz— eta azkenik itandu eutsan psikologoak adikortasunezko irribarrea eginez:

— Eta esango zeunskit zergaitik?

— Zergaitik, zer...? —esan eban Sinfinek ahotsizpi batez eta guztiz ikaraturik.

— Ba zergaitik emoten deutzazuzan ostikadak... jendeari, irakasleatariko bat tarteko.

Serafin Lopezek bizkarrak uzkurto zituan.

— Ba ez dakit, gura barik egiten dot. Oina joan egiten jat...

Psikologoak bizarra ponpoxtu eta esan eban sendabide bat jarraitu behar zala. Astero hiru sesio, sesio bakoitza ordu betekoa.

— Hiru sesio astean? —itandu eban ikaraturik Sinfinen amak.

— Bai, hori esan dot, andrea. Zeure semea osatzerik gura badozu...

Ez, Sinfinen ama ez zan estutzen azkenean psikologoak pasako eutsan fatureagaitik —ziurrenik ha ere estutzekoa izango zan arren—, beste arrazoi desbardin bategaitik baino: bere semea aste osoan zehar hain lanpetua ebilenez, ezinezkoa zan hiru

ordu aurkitzea sendabidea jarraitzeko.

Izan ere, Renatak —adibide ezaguna ipintearren— pianoa joten baeban, ingelesa ikasten baeban, etabar, etabar, Serafin Lopez gizajoak —Sinfin lagunentzat— eskolara joaten zan, etxerako lanak egiten zituan, ingelesa ikasten eban akademia baten, flauta ikasten eban Kontserbatorioan, karatea arte martzialetak eskolan, eta gainera informatika, andaluz dantzak, marrazki artistikoa eta pintura, etabar, etabar, etabar. Ah, eta domeka baten bai eta bestean ez, irratizaletuen alkarte batera eroaten eban aitak —biak bazkide ziralako—, “uhinetara ohituz” joan eiten.

Beraz, ea nondik deabru aterako eban denporea ostikadak emoteko mania hori kentzeko!

Psikologoak esan eban: “Ezohizko jarrera kompulsibo honen sustraia aurkitu behar da. Behin sustraia aurkitutakoan, dagokion terapia ezarri ahal izango dogu”.

— Txinarra ez da ba izango psikologo hau?

— Txinarra? Zergaitik?

— Berba egin behintzat, txineraz egiten dau!

Bai, benetan. Baina ulertuta edo ulertu barik, nork uste dozu aurkitu ebala Serafin gizajoaren “ezohizko jarrerearen sustraia” eta egokion terapia aholkatu? Lolesen aitak!

— Teologoak?

Horretxek, teologoak. Ea zelan ezagutu eban kasua? Bere alabeak kontatu eutsalako.

— Eta ez eutsan kontatu Renataren paperezko

txoritxoena ere?

Jakina. Kontatu eutsan hori ere. Eta baita aurkitu ere urtenbidea don Germanek. (Esan deusut dagoaneko Lolesen aita German deitzen dala?)

— Arraioa, teologoa halakoa!

Egun baten agertu zen Loles bere lagun Renataren etxean eta bota bapatean doña Maribeli:

— Nire aitak esan dau Renatak itziko deusala gauetz txoritxoak egiteari egunez egiten baditu. Egunez astirik ez daukanez...

— Esaiozu aitari, polit horrek, arduratzeko bere...!

Doña Maribelek mihinari haginka egin eutsan konturatu zanean bere onetik urteten joiala. Guzurrezko irribarre bat egin eban, eta Lolesi laztan bat eginez, honelan zuzendu eban esandakoa:

— Hori dino zure aitak, polit hori? —Eta sukaldera joan zañ bakarrean nasaitzeko bere urduritasuna. Han lortu eban pixkat baretzea. Baina zer pentsatu ete dau abade garbatu horrek. Sotanea urkatu ondoren ere sermoiak egin eta aholkuak emon daikezala uste dau!

Bai, doña Maribelek jakin eban don German abadea izan zela, badakizu? Beno, egia esateko, askoz ere gauza gehiago jakin zituan. Esan eitekean Renataren amak ia dana ekiala Lolesen aitari buruz. Informazioa bere koinatu Agustinek, detektibe pribatuak, emon eutsan. Don Agustinek honako datu honeek batzea lortu eban: German Sansegundo Villalobos, fraile domingotarra izana, orain dala ha-

mabi urte itzi eban fraile-bizitzea eta ezkondu egin zan Susana Valdivieso, kazetariagaz; eta trafikoko istripu itzel baten ondorioz, alargun eta ume bategaz geratu zan.

— Itzela! —oihu egin eban baxuan doña Maribelek, hau entzutean.

German Sansegundo Villalobos marrazketa irakaslea zan instituto baten eta...

— Eta zelan ulertu daiteke irakaslea izanik —kendu eutsan berbea Renataren amak bere koinatuari— bere alabea eskolara ez eroatea?

— Umea ez doa eskolara, baina aitak berak emoten deutso klasea etxean —argitu eban don Agustinek, detektibe pribatuak, arretaz egindako txostenagaz jarraituz—. Beno, umeak zazpi urte zituanetik hasi jakon klaseak emoten, adin horretara arte ezer ere ez. Zazpi urtegar ordu bete emoten eutsan eguneko. Zortzi eta bederatzigar, ordu bi. Eta orain hamar urte dituanean, hiru ordu egunean.

— Eta zuk uste dozu, Agustín, hori... normala dala? —esan eban doña Maribelek.

Eta Renataren amari ez jakonez behar lakoa iruditzen ez hau, ez Loles eta honen aitari egokienik ia ezer ere, eta oraindino arraragoa iruditzen jakonez tipo hori etortea alabea zelan hezi behar eban aholkuak ematera, erabagi eban aurrez aurre berba egitea teologoagaz —beno, “abade ohiagaz” esan eban Maribelek— German Sansegundo Villalobosegaz.

— Orain ez dau ba esan Renatak egunez egin

behar dituala txoritxoak, gauetz ametsetan egiterik gura ez badogu! Berak bai duala burua txoriz beteal!

Egia da, dana dala, Lolesen aitak ez eutsala esan Lolesi paperezko txoritxoena gero Renataren amari esan eion. Ah, ez. Don Germanek ozenki egin eban gogoetea baino ez zan izan hori, baina alabeak doña Maribeli azaldu eutsan ezelako malizia barik.

Serafin Lopezen arazoan, oster, bai hartu eban parte don Germanek zuzen-zuzenean. Ostikoen auzian esan gura dot.

Lolesek kontatu eutsanean, don German pentsakor geratu zan, gero irribarre egin, gero atzamarrak klaskatuazo zituan eta, azkenik, oihu egin eban:

— Badaukat!

— Zer daukazu, aita? —itandu eutsan alabeak.

— Urtenbidea, alaba. Badakit zure lagun Sinfinek zergaitik emoten deutzazan ostikoak ipurdian mundu guztiari.

— Ah, bai? Zergaitik?

— Ba, begira... —eta don Germanek azaldu eutsan bere alaba Lolesi zein ondoriotara heldu zan eta, gainera, plan bat proposatu eutsan. Lolesek pozarren onartu eban plan hori .

— Ederto, aita, ederto!

— Prest zagoz egiteko?

— Prest nagoan...? Sinfin psikologoagana doan hurrengo egunean, hantxe agertuko naz!

Eta horrelan izan zan. Lolesek atara eutsan bere lagunari zein egunetan eta zer ordutan tokatzen ja-

kon bisitea eta, ezer esan barik, kontsultan agertu zan plastikozko boltsa handi bategaz.

— Zer egiten dozu zuk hemen? —itandu eutsan Sinfinek ikustean.

— Ezer ere ez. Kanean nenbilen eta zu hemen ete zengozan ikustera igon dot.

Juxtu une horretantxe zabaldu zan kontsultako atea eta erizainak Serafin Lopezi deitu eutsan. Mutila eta bere ama doktorearen kontsultara sartzerakoan, Lolesek aurrea hartu eutsen erabagi sendoaz:

— Sartu naiteke neu ere? —itandu eutsan erizainari. Honek eta Sinfinen amak begiratu eutsien alkarri, baina Lolesek ez eutsen astirik emon ez konturatzeko ez erantzuteko ez batari ez besteari:

— Zerbait garrantzitsua daukat doktoreari esateko.

Eta ez Jainkoari ez deabruari goraintziarik bialdu barik, kontsultan sartu zan eskuan ekarren boltsa handia aldean ebal.

— Parkatu doktore jauna, badaukat sendabidea nire lagun Sinfinentzat.

— Sinfin?! —itandu eban medikuak, harrituago neskatoa sartu zalako entzun zuen izenagatik baino.

— Bere lagunak era maitakorrean “Sinfin” esaten deutsie, doktore jauna —argitu eutsan umearen amak, Lolesi begirada bildurgarri bat botaz.

— Orduan sendabidea daukazu, eh polit horrek? —itandu eutsan psikologoak plastikozko lorea baino irribarre faltsuagoagaz.



— Bai, jauna, hemen daukat —erantzun eban Lolesek plastikozko poltsea seinalatuz.

— Hor?! —oihu egin eben danek batera medikuak, erizainak eta Sinfinen amak.

Lolesek gero eta seguruago ikusten eban bere burua, norainoko harridurea sortzen ebanaz jabeturik:

— Bai, hemen dago sendabidea.

Lolesek pausu batzuk atzera emon ebazan, konsultarean erdian jarriz.

— Sinfin —agindu eutsan sendo mutikoari—, jarri zaitez nire aurrean.

Umeak haren esana egin eban, bixiguak adinako harridurazko begi biribilekaz, eta Lolesen aurrean kokatu zan.

— Orain emoizu bira erdia.

— Bira erdia?

— Bai, bira erdia. Esan gura dot, niri lepoa emonez jarri zaitezala.

Sinfinek, esandakoa egin eban.

— Ondo —jarraitu dau Lolesek, lehenengo bere lagunaren amari eta gero medikuari begiratu—, Jakin gura dozue zergaitik ibiltzen dan Sinfin jendeari ipurdian ostikadak emoten? Ba ez daukako ezer egokiagorik ostikadak emoteko. Eta jakin gura dozue zein dan urtenbidea hori egitea izteko?

Iguripenezko isiltasuna. Psikologoak eta erizainak neskatoari begiratu eutsien beste munduko izaki baten aurrean balegoz lez. Sinfinen amak idunekoz zapi bat bihurrikatzen eban larri esku artean.



Lolesek edegi dau boltsea patxada handiz eta boltza barruan dagoana ateraten dauan bitartean, barrero botaten dau lehentxoago egin dauan itauna:

— Jakin gura dozue zein dan urtenbidea Sinfin jendeari ipurdian ostikadak emoten ibiltea izteko?

Eta baloia ipini dau umearen oinetan.

— Biratu zaitekez! —agintzen deutso lagunari. Sinfinek bira egin eta, barru-barrutik urten deutsan pozezko oihu bategaz ostikada bat emoten deutso baloiari; medikuak horman eskegita eta enmarkaturik daukan psikologo-tituluaren kontra jaurtiz.

Serafin Lopezen amak markoa eta diplomearen kristala ordaindu behar izan zituan, baina sendabide amaierako faktuera aurreztu eban, arratsalde horretan bertan eten ebalako, eta semeagaz joan zan baloi bat erostera.

Bestalde, Renataren ama, alabatxoaren papezko txoritxoak zirala eta, Lolesek esan eutsanagaitik susmoak hartuz, erabagi eban —uste dot kontatu dodala— don German Sansegundo Villalobosegaz aurrez aurre berba egitera joatea. Beno, berba egin baino gehiago inoren ardurako auzietan sartzeagaitik, Fernandoren egiak esateko asmotan joan zan. Eta horregatik ez eutsan ezer esan senarrari. Esan gura dot ez eutsala esan bisita hori egiteko asmoa ebanik, baekielako don Manolok ez ebalala onartuko. Don Manolo ez zan besteen bizi-moduetan sartzearen aldekoa.

Doña Maribel eta don Manolok jai izaten eben euren lantokietan zapatu batean bai eta hurrengotan ez. Baina inoiz ere ez ziran biak batera egokitzen. Esan gura dot don Manolok Postetxean lan egiten eban zapatuan, emazteak atsedeen-eguna eban; eta emazteak supermerkatuan lan egiten eban zapatuan, senarra atsedeen-eguna eban.

Beraz, doña Maribelek berari jai egitea tokatzen jakon lehenengo zapatua aukeratu eban. Hamai-kak lauren gutxiagotan prest egoan etxetik urtete-ko.

— Baina gaur kontzertua tokatzen jaku, ama —gogoratu eutsan Renatak.

— Bai, badakit. Baina ez zaitez arduratu. Hamabietan, beranduenik ere, bueltan izango naz. Ez atea inori edegi, eta aitak telefonoz deitzen baidu, esaiozu erosketa batzuk egitera joan nazala. Ah, eta ez eizu jo pianoa.

Renata bakarrik geratu zan eskolako lenguaiaiko lan bat amaitzen eta solfeoko ikasgai batzuk presatzen hurrengo asterako. Pianoko ariketa bat ere berrikusi beharra eukan, baina bere amak debekatu eutsan pianoa jotea etxean bakarrik geratzen zanean.

— Ez dot ulertzen zergaitik —esan eban don Manolok—. Norbait etorten bada asmo txarraz, hobeto izango da etxean norbait badagoala ohartzten bada, nik uste.

— Inozo hutsa zara, Manu —erantzun eutsan doña Maribelek—. Gauza bat da bizitasuna eta beste bat oso desbardina ikasletxo bat, hau da, ume bat pianoa jotzen. Lapurrak entzun orduko bereizten dabe!

Eta zer desbardintasun dago etxean bakarrik dagoan umearen pianoa joteko erearen eta jende gehiagogaz dagoanaren artean? Itaun hau don Manolok bere burari egin eutsan, baina ez eban kan-

poratu. Hau da, isildu egin zan, bizkarrak uzkurtu egin zituan eta indarrean jarri zan Renatak pianorik ez joteko araua etxean bakarrik baegoan.

Baina zapatu haretan zapaldu egin eban araua. Hilabete falta jakon urteak beteteko —hamar urte, bai zaharra!— eta bere jaiari berak asmatutako abesti bat kantatu gura eban. Letra eta musika, dana eban berak asmatua. Letrea bere lagunei buruz zan, denak aitatzen zituan, euren izen eta ezaugarriekaz. Estrofa batek, adibidez, honelan inoan:

*Patxi Gordo argalena da  
denon artean.  
Eta Lolesek piloa daki  
jolasean.*

Eta musika oso alai zan. Baina abestia mundu guztiarentzat ustekabea izatea gura eban, eta horregaitik saioak ezkutuan egin beharra. Eta noiz aukera hobea etxean bakarrik egoanean baino! Beraz jezarri zan pianoaren aurrean eta hasi zan teklea-tzen:

Tin - tan - ton - tan - tan - tin - ton - tin - tan - ton...

Bapatean, seko geratu eta entzun eban:

Tok - tok - toktok - tok - toktok - toktok...

Kris zen, bere lagun barria! Kris, alboko etxebizitzako neskatoa zan eta hilabete besterik ez lagun egin zirala, etxebizitza biak banatzen zituan horman zehar komunikatzen ziran: Renatarena 5. C,

eta Krisena 5. B. Renatak notak jotzen zituan pianoan eta Krisek kolpetxoak horman. Eta horrelan berba egiten eban. Hasieran haxe bakarrik esaten eban “kaixo” eta “gero arte”, baina, apurka-apurka, bokabulario “morse” berezi bat asmatzera heldu ziran eta hamaikatxo gaiez berba egiten eban. Egia esateko, auzokoak izanik, etxeonak gainera, —horma mehe batek aldentzen zituena, egizu kontu— oso gitxi ikusten eban elkar. Hain lanpeturik egozanez, ia ez eban astirik bataren etxetik bestearenera pasatzeko eta apur baten alkarregaz olgetako! Horregatik gozatzen eban hormearen bitartez barriketaldiak eginez. Horregaitik, zapatuko goiz haretan Krisek pianoaren lehenengo notak entzun orduko hormea jo eban ukabilaz —tok-tok— eta Renata agurtu eban:

— Kaixo, Renata.

— Kaixo, Kris —erantzun eban Renatak pianoaz.

— Zer egiten dazu? —jo eban Krisek.

— Bakarrik nago etxean —solfeatu eban Renatak.


— Neu ere bai! —jo eban tok-tok Krisek.

Eta erabagi eban biak alkarregaz olgetea apur baten. Krisen etxean, ordenagailurako joko lilurgarri batzuk eukazalako honek.

Renatak abiada bizian urten eban etxetik, kolpean itxi eban atea eta...

— Ene, giltzak barruan itzi dodaz!

Jada ez egoan konponbiderik. Adi egon behar-



ko eban ama bila etorkonerako kontzertura joateko. Ah zelako bronka entzun beharko eban! Baina ez eban errietarik izan. Zeren doña Maribel, Renataren ama, ez zan itzuli. Beno, edo itzuli bazen ere, Renata ez zan konturatu. Ume biak ordenagailuko pantailan sartu ziran buru-belarri eta han jo eutsie-

ezan hamabiak, ordubatak, ordubiak.

Ordubietan Krisen gurasoak itzuli ziran eta orduan Renatak eskuak burura eroan zituan — ene! — eta arineketan abiatu zan bere etxera. Jo eban hainbat bider txirrina, baina inork ez eban atea zabaldu. Eta txirrina joten aurkitu eban aitak, don Manolok, etxera itzultzean.

— Zer egiten dozu zuk hemen? Itzuli zarie kontzertutik?

— Ez gara joan, aita. Beno, ni behintzat ez naz joan...

Eta Renatak aitari kontatu eutsan zer gertatu zan.

Eskeilara buruan kontatu eutsan, don Manolori ere etxean ahaztu jakozalako giltzak!

— Eta ama orduan...? —itandu eban, arduratzten hasita.

— Beharbada bera bakarrik joan da kontzertura —esan eban Renatak.

— Zelan joango zan ba bakarrik! Itzuli bada eta ikusi ez zagozala etxean, zure bila ibiliko da zoro baten moduan, ziur. Zure ama ezagututa, pentsatuko eban bahitu egin zaituela, hori gitxienez!

Baina baeitekean Maribel bera izatea bahitua, edo antzerako zerbait. Zelan esan daikedan hone-lako disparteata? Ez, ez dinot nik, don Agustinek, detektibe pribatuak, esan eban edo behintzat aitatu eban zerbait. Beste ezer baino lehen don Manolok bere anaiari deitu eutsan Krisen etxetik, eta gertatzen zenaren barri emon eutsan.

Don Agustín, ausnartu une batez eta, honako

hipotesi honeek botatera ausartu zan:

*a)* Bere koinateari, Maribeli erosketa horreetan denporea arin joatea, eta ikusirik ez ebalatzen astirik Renataren bila etxera itzuli eta kontzertura joateko, dendarik denda jarraituko ebalatzen, eta horrelan izanik heltzear egongo zan.

*b)* Hamabietan itzultzea alabearen bila eta, ikus-tean ez egoela etxean, orain haren bila ibiltea estu eta larri.

*d)* Bardin, baina bera bakarrik joatea kontzertura (“ezinezkoa” —guzurtatu eutsan bere buruari, une berean don Agustinek).

*e)* Kolean zerbait gertatu izana.

*f)* Etxean zerbait gertatu izana.

— Zelan etxean?! —erantzun eutsan, oiher batez, don Mañolok.

— Esan gura joat —argitu eban don Agustinek ahots sotilaz— leitekena dala (eta eskatzen deuat, Manolo, ez hadila larritu) Maribel itzulita, etxe barruan egotea eta ez erantzutea, ba... zorabio txiki- ren batek edo horrelako zerbaitek emon deusala- lako.

— Eta esaten deustak ez larritzeko? —oiherkatu eban don Manolok, mehatxuzko keinua eginez te- lefonotik.

— Nasaitu hadi, gizona, mesedez —esan eutsan detektibeak—. Ia, zer ordu dok orain?

— Hirurak lauren gitxiago.

— Begira, gauza bat egin geinkek: itzarongo jo- agu hiru t’erdiak arte eta ordurako agertzen ez ba- dok Maribel, sarraillari bati deituko jeutsagu.

— Ez, pentsatu ere ez! —bota eban don Ma- nolok—. Nik oraintxe bertan deituko jeutsat sarrai- lariari!

— Ados, ados —erantzun eutsan bere anaia Agustinek telefonoaren beste aldean—. Bitartean, horrantz noiak.

Sarraillariak edegi eban atea, bitartean don Ma- nolo baretu ezinik ebilen, eta ikusi eben doña Maribel ez egoala barruan. Etxe barruan sartu ziran unean bertan heldu zan Agustín detektibea.

— Ez jagok, Agustín, ez jagok!

— Nasai, Manolo, nasai. Aurkituko joagu, ikusi- ko dok.

— Poliziara deituko joagu? —itandu eban Manolo gizarajoak.

— Ez, oraingoz ez dok beharrezko. Telefona- tuko joagu... Ezin izan eban esaldia amaitu, telefo- noak orduantxe jo ebalako.

Don Manolo eta bere alabea tximistea lez oldar- tu ziran aparatura. Umea heldu zan lehenengo:

— Ama!! —oiher egin eban telefonoa hartzean.

Ez zan ama, bere lagun Loles zan. Renatak zo- rabiaturik kontatu eutsan gertatzen zana.

— Ba bada ordubete baino gehiago hemendik joan dala —esan eban lagunak.

— Hortik...? —itandu eban Renatak ezer uler- tzen ez dauanaren aurpegiaz. Eta oraindino gitxia-



go ulertzeko aurpegia jarri eben aitak eta osaba Agustinek.

— Nor da, zer dino? —arakatu eban detektibeak ia gehiago keinuez ahoaz baino.

— Nire lagun Loles —erantzun eban Renatak aurikularra estalduz— eta dino ama haren etxean

izan dala.

— Haren etxean?! —oihu egin eben anaia biak batera. Eta don Agustinek kendu eutsan telefonoa umeari.

— Zu, polita, Renataren osabea naz. Zure aita etxean dago? Eta jarri daiteke?

Don Agustinek ebagi egin eban une batean, bi-tartean nasaitasuna gomendatzen eutsan bere anaia Manolori.

— Kaixo, arratsaldeon —hasi zan barrero, neurri bagako irribarre bategaz—. Agustin Gutierrez Cejudo naz, Maria Isabel Ariasen koinatua, beno, Renataren osabea, ulertu deidazun. Eta begira: ordu batzuk badira ez dakigula ezer Maribelez, eta dirudienez...

Don Agustinek ebagi eban bapatean eta adi egon zan aho zabalik eta begiak ñir-ñir. Horrelan hiru lau minutu. Gitxienez. Azkenean esan eban:

— Eta esango zeunskit zelan urten dauan zure etxetik?

— Pentsakor —erantzun eban Lolesen aitak, telefonoaren beste aldean.

— Berba egin dozuengaitik?

— Ziur asko.

— Ba..., zertaz berba egin dozue?

— Azaldu deutsut: haurtzaroaz, olgetez, jostailuez, etabar, etabar...

## VI. ... ETABAR

**D**on Agustin, detektibe pribatua, eskegi telefonoa eta zapata puntei begira geratu zan.

— Zer esan deuk? —itandu eutsan arin don Manolok.

— Ez dakiala non egon daiteken. Badala ordu t'erdi inguru haren etxetik urten dabela, baina ez deutsalara esan nora joian.

— Zerbait gertatu ete jako? Poliziari deitu behar jeutsagu poliziari, ospitaletara, ezin gaituk geldi egon...!

Don Agustinek atzamar indizea ezpanetara erotan eban, isiltasuna eta baretasuna eskatuz anaia bikiri.

Segundoak astiro pasatu ziran. Renatak aitari eta osabeari begiratzan eutsen eta ez ekian zer pentsatu.

Don Agustinek eten eban azkenik mututasuna, heldu eutsan Renataren aitari sorbaldatik eta itandu



etsan misterio zantzu bategaz:

— Badakik non jaio zan Maribel?

— Non... jaio?

— Bai, non jaio zan, uriko zein auzotan, zein etxetan.

Don Manolok ez ekian bere anaia zoratuta egoan ala adarra joten ebilkon.

— Gogoratu behar dok, Manolo —ekin etsan esaten don Agustinek—; ziur Maribelek noizpait esan euala non jaio edo non bizi izan zan umetan.

— Gogoratzen joat —hasi zan zalantzakor Renataren aita— zein etxetan bizi zan ezagutu nebanean eta ezkongaiak ginanean. Ni postaria ninduan eta bera bizi zan auzunean tokatzen jatan banatzea...

— Baina etxe horretan jaio ete zuan eta hor igarero haurtzarora? —eten etsan detektibeak.

— Ba ez jakiat, Agustin, ezin joat ziurtatu. Maribel, koitaduak, aitatzen joazan bere haurtzaroko gauzak, baina inoiz ez jeustan esan...

— Zergaitik dinozu koitadua, aita?! —eten etsan asaldatuta bere alaba Renatak—. Amari buruz berba egiten dozu, ez dakit... ez dakit zer lez.

Eta negarrez hasi zan, koitadua, atsekabe itza-lez!

— Renata, alabea, ez eizu negarrik egin —besarkatu eban osaba Agustinek—. Amari ez jako ezer gertatu. Gertatzen dana, ba, ez dakigula non dagoan eta aurkitu egin behar dogula. Zeuk lagun-du nahi deustazu aurkitzen? Ez zeunstan esan esan

egun baten detektibeak izan gura zeunkela osaba Agustin lez? Ba oraintxe dozu aukerea!

Renatak begiak igurtzi eta osabeari begiratu etsan jakinminez. Aitak parte hartu eban une horretan:

— Aitita-amamei ezin jeutsegu deitu, ikaratu egingo litzatekezak. Pentsatzen jiharduat behar bada bere lagunak batek... Hori, Rakel, ez jakiat zelan ez jatan lehenago bururatu, Rakel eta Maribel umetandiko lagunak dituk! Baina entzun gauza bat, Agustin —ebagi eban don Manolok—, esango deustak zertarako jakin behar doan non jaio zan Maribel?

— Hik itzidak neure bidea egiten —erantzun etsandetektibeak—, azalduko deuat geroago. Beraz, Rakel, haren laguna... Bajaukagu haren telefonorik?

Don Manolok telefono ondoan egoan agenda baten begiratu eta ikusi eban baietz, han egoala.

— Ondo, deitu egin behar jakok —eta barriz Renatari zuzendu jakon—. Zuk deituko deustazu, ados? Eta itandu eiozu non eta zelan jolasten eban txikia zanean.

— Baina ez huan jakin nahi non jaio zan Maribel? —esan etsan barriz don Manolok, gero eta harrituago.

— Isilduko haz une batez? —erantzun etsan don Agustinek, ia benetan haserretzeko zorian—. Zelan itanduko jeutsak, ba, non jaio zan bere ama? Ez haz konturatzen Rakelek pentsatuko leukela

adarra jotzen jabilkola? Entzun, Renata: detektibe onak batzuetan amarruak erabili behar izaten ditu... zelan esango neuskizu?, apur bat irrealia izan behar dau informazioa lortzeko, ulertzen dozu? Horregaitik deituko deutzazu, esaten deutzudan lez, amaren lagunari eta eskatuko deutzazu kontatu deizula non eta zelan olgetan eben umetan, gai honetaz eskolarako lan bat egiten diharduzulako. Harek erantzungo deutsu, ia ziur, ea zergaitik ez deitsun zeure amak kontatzen, lagunak zirialako eta alkarrekin olgetan ebelako, eta orduan zuk erantzungo deutzazu...

— Ados osaba, ez dot behar gehiago esaterik —eten eutsan Renatak, begiak diz-diz zituala telefonoa hartuz, erabagi sendoz.

— Baina Ranita! —parte hartu eban don Manolok—, ez deutzazu esan behar ama galdu egin danik!

— Ez zaitetz arduratu, aita, nik badakit zer gura dauan osaba Agustinek.

Eta hasi zan zenbakia markatzen. Don Agustinek nasaitzeko keinua egin eutsan anaiari.

— Kaixo, Rakel hor dago? —Renatak, bapatean, itzelezko ustekabe aurpegia jarri eban. Ikara aurpegia hobeto esanda!

— Zer gertatzen da itandu eben anaia biak batera.

— Ba... Toñi negar baten dago. Eta haren ama ere desagertu egin ei da!

— Zeeer?! —oihu egin eben anaia biak. Eta don

Agustinek telefonoa kendu eutsan Renatari.

— Zu, polita, zure ama ez dagoala etxean dinozu?

Telefonoaren beste aldean isiltasun luze baten ondoren andrazko heldu batek erantzun eban:

— Nor da?

— Ni... ni Maribelen, Rakelen lagun baten senarra naz, —guzurra esan eban detektibeak azalpen gehiagorik ez emoteko—. Eta zu..., nor zara?

— Ni auzoko bat naz. Hemen nago umea, Toñi, zaintzen, Armandok emaztearen bila urten daualako. Inork ez daki non dagoan. Ordubatak inguruan urten dau; umeari esan deutso berehala itzuliko dela eta oraindino ez da itzuli eta ez dau telefonoz deitu. Senarra, Armando, oso kezkatu dago. Istri-puren bat izango ete eban edo. Beharbada txarra goa oraindino: beharbada bahituta edo.

— Bahituta? —oihu egin eban don Agustinek.

— Bahituta?! —oihu egin eban, oraindik aztortuago, don Manolok.

Renatak, ostera, ez eban ezer esan. Baina arinetan urten eban telefonoa egoan egongelatik.

— Eh, Ranita, nora zoaz?! —deiadar egin eban aitak, ia bere onetik urtenda.

Agustinek anaiari isiltzeko agindu eutsan keinu bategaz. Telefonoan jarraitzen eban Agustinek:

— Zergaitik heldu da ondorio horretara? Rakel beharbada...

— Ba etxetik urten baino lehen —erantzun eutsan detektibeari berbakideak— telefonoz dei bat

hartu dau, badakizu? Eta Armandok pentsatzen dau norbaitek zitaren bat ipini deutsalara nonbaiten eta gero... Begira, joan da poliziarengana parte emotera.

— Beraz, telefonoz deitu deusie... —esan eban don Agustinek bere buruari esango baleutsa lez. Eta juxtu une horretan zabaldu zan egongelako atea eta barriri agertu zan Renata. Enmarkatutako argazki bat ekarren eskuan.

— Begira, osaba! —oihu egin eban zerbaiten bila ibili eta aurkitu dauanaren indarrez.

— Ea ikusi!

Detektibeak agurtu telefonoko berbakidea, irribarre egin pozik eta mosu zaratatsu bat emon eutsan ilobari matrailan.

— Begi zorrotzak dituzu, Renata. Detektibe handia izango zara!

Gero argazkia erakutsi eutsan bere anaia Manolori.

— Begira, Manolo, zer ikusten dok hemen?

— Maribel lehenengo jaunartzean.

Bai, Maribelen, Renataren amaren argazki bat zan, bere lehenengo jaunartze egunekoa. Zuriz jantzita, beloagaz, nakarrezko liburutxoa eta erro-sariotxoa eskuetan zituala.

Don Agustinek ekin eutsan:

— Baina, zer ikusten dok argazkian, eh? Begira egk ondo.

Renatak erantzun eban, osabeagaz sekreto bat baleuka lez eta apurka-apurka argituz joango balitz legez:

— Hor ikusten dana —apuntatu eban atzamarraz argazkia— Moreras paseoa dagoan tren makinearen muturra da.

— Horixe bera! —hots egin eban don Agustinek—. Baina kontuz: argazki hori atara zanean, lokomotore hori ez egoan hor, San Kirzeko lorategitxoetan baino, hau da, Pajareria auzunean, ez haz gogorutzen, Manolo? Izan ere, badakizu, Renata?: lokomotore hori antzinako trentxo ospetsu batena zan, “tren astoa” deitzen eutsien, astoa baino azkarrago ez zalako ibilten, eta helduera geltokia Pajareria auzunean eukan. Trena zirkulaziotik baztertu ebenean makinea jarri eben, monumentu modura, auzo haretako lorategietan. Gero Moreras auzunera eroan eben, baina zure amari argazki hau egin eutsienean...

— Badakit, badakit! —oihu egin eban Renatak, pozez jauzika—. Horrek esan gura dau amari lehenengo jaunartzeko argazkia lorategi horretan egin beutsien, han bizi zalako...

— Jakina, zein leloa nazen! —oihu egin eban orduan don Manolok, berbea kenduz ahotik alabeari—. Amak beti esan dau Pajareria auzunea zala bere auzunea! Beno, baina... eta zer?

— Eta zer dinok? —erantzun eutsan don Agustín detektibeak, anaiari eta lobeari bizkarretik helduz—. Hau bazan haren auzunea eta argazkikoa haren auzuneko parkea bada, bajakiagu non dagoan doña Maribel Arias. Beraz goazen berehala haren bila. Eta gehiago —jarraitu eban don Agustinek

ondorioak ataraten, hirurak detektibearen kotxean sartzen ziran bitartean—, ia ziur nagok han aurkituko dogula haren haurtzaroko laguna, Rakel.

Don Manolok ez eban ia batere ulertu anaiaren dedukzio korapilotsu ha, baina ez zan ausartu ezer itauntzen Pajareria auzunerako bidean.

Bere alaba Renataren itaun batek, ostera, ekarri eutsan argi pixka bat.

—Zu, osaba Agustin—esan eban umeak—, eta amaren bila lorategi horreetara joateko esan deustu telefonoz nire lagun Lolesen aitak?

—Ez, Renata; zure lagun Lolesen aitak esan deustan bakarra, ama haren etxera joan dala eta zertaz ihardun daben berbetan. Gero nik, pista horreekaz neure ondorenak atara ditut, badakizu?

—Ah—oihu egin eban Renatak momentuan—, ba detektibe izatea jolasa lez da, ezta?!

—Gitxi gorabehera, maitea, gitxi gorabehera—erantzun eban don Agustinek irribarre zabal bagaz. Eta gero esan eban bere baitarako: “Eta hain zuzen, jolasean dago arazo guzti honen kakoa.”

Laster ikusiko dau irakurleak baietz. Azkenik heldu ziran uriaren mendebaldean dagoan Pajareria auzunera, parketxoa bilatu eben. Kotxea apartatu. Jadanik arratsadeko hiru t’erdiak ziran. Ez egoan ia inor kalean, mundu guztia artean bazkalitzen egongo zan.

Parke txikiak ere huts-hutsik zirudian. Otsailaren amaiera zan—hilabete bat eskas falta zan Renatak urteak beteteko—, baina jadanik udabarria



barruntatzen zan lorategiko zuhaitzi urrian. Kimu barriak dirdirutzen eben zumar eta urkien puntetan. Larrosondo batek, zurezko jezarlekuz inguraturua, lehenengo kimuak erakusten zituan. Hesi lodi eta jaso baten ostetik, bapatean, uso aldra bat hegatu zan. Eta haren hegoen burrundarea zalapartaria

isiltzean, barre-algara batzuk entzun ziran, garbi, parkeko bazter ezkuturen baten.

— Umeak dabilz olgetan —esan eban Renatak.

Don Agustin gelditu egin zan. Isiltasuna eskatu eutsen keinu batez laguntzaile biei eta barrriro jarraitu eban ibilten, polito-polito, hesia inguratuz. Renata eta aita atzetik joiazan, hari orpoz-orpo jarraituz. Hurrago entzuten ziran barreak eta baita zabuen kateen kurrinka berezia ere.

Juxtu, han egozan. Neskato bi. Barrez zihar-duen eta zabuan ebilzan, eginahalean, heldu barriei bizkarra emonez. Neskato bi?

— Baina amatxo da eta! —garrasi egi eban, bapatean Renatak

— Aamatxo?! —deiadar egin eban don Manolok ere.

Doña Maribelek burua biratu eban eta beste horrenbeste haren jolaskideak, Rakelek, jakina.

— Kaixo! —oihu egin eutsen Renataren amak, eskuari eraginez.

Aita-alabak zabuetara hurreratu ziran, don Agustinek, detektibeak ikuskizuna urrundik behatzea nahiago eban bitartean.

— Begira, Renata, begira noraino igoten dodan! —dino doña Maribelek, indarka eginez.

Argi egoen lagun biak denporearen zantzua galdua ebela.

— Ama, kontuz ibili zaitetz —deiadar egin eutsan senarrak—, buruzgainka jausi egingo zara!

— Ez zaitetz kezkatu, don Manolo —erantzun

eban doña Maribelek garrasika—, Rakel eta biok hona etorten ginan txikitan eta auzuneko txapeldunak ginan! Ah, eta badakizu beste gauza bat? —jarraitu eban Renataren amak zabuan kulunkaz oihuka zarata baten—, kalkulatu ditudala neure hartzaroan jolasean emon behar nituan orduak eta gitxi gorabehera benetan neukazanak, eta zor handia daukat.

— Zer...? —itandu eban don Manolok.

— Zooorra! Jolas-orduen zorra, kitatu behar dodana! Eta horregaitik Rakelek eta biok zapatuero hona etortea erabagi dogu eguneratzeko!

— Eta kontzertuak? —oihu egin eban don Manolok.

— Zer? —oihu egin eban barriz Maribelek, eskua belarrian jarriz, baina zabuari indar egiteari itzi barik hankak ondo luzatuta.

Don Manolok erabagi eban ez erantzutea. Oihuka berba egitea ez egokiolako bere nortasunari.

Eta izan ere, hemen transkribatu dogun alkarritzeta guzti hau, gehiegikeriarik esan barik, autulagun bata Madrilen eta bestea Bartzelonan balegoz lez izan zalako. Benetan.

Hala ere, senar-emazteak gero esan ebena, Maribel zabutik jaitsi zanean, hain zurrumurruan eta hain berba erditan izan zanez, eta irribarre artean, Renata, euren ondoan joan arren, ez zan ezertaz jabetu.

Renatak jakin ebana, gertakizun hareetatik hila-bete t'erdira gitxi gorabehera, eskolatik itzuli zan

baten amak emon eutsan barria:

— Renata: zure aitak eta biok umetxo bat eskatu dogu zeugaz olgetako.

Eta Renatak...

Benot: Renatak pentsatu, esan edo egin ebana, gurasoak hain jostailu berezia oparituko eutsiela jakitean, irakurlearen irudimenerako itziko dot.

Esango dodan bakarra —eta horrenbestez isilduko naz— etxera itzultzean emon ohi eutsan mo-sua eta oraindino emon barik eukana, sabel-zorroan emon eutsala, oso zaratatsua gainera.

Paaaaaaa!

## **Aurkibidea**

---

I. Renata .....	7
II. Pianoa jotzen dau .....	23
III. Ingelesa ikasten dau .....	45
IV. Eta etabar... ..	63
V. Etabar... ..	83
VI. ... Etabar .....	105

## GAZTARO BILDUMA

1. Drogarik EZ!
2. Renatak pianoa joten dau,  
ingelesa ikasten dau eta  
etabar, etabar, etabar
3. Hiltzen bazara,  
ikusiko dozu...
4. Karibeko ipuinak
5. Gorbeiatarrak
6. Astoa eta laurok  
Euskal Herrian zehar



**R**enata, eskolatik kanpo jarduera larregi egiten dauzan neskatilea da, eta egun baten, gehiago egin ezinik, eztanda egiten dau: sonanbula bilakatzen da, eta, gauero, jagi eta bururatzan jakon gauza guztietara olgetan hasten da.

Umerez beterik, egileak, heldu askok euren seme-alabei “onena” emoteko daben mania kritikatzan dau. Gurasoak etorkizunerako ezagupenak eta prestakuntza emon gura deusiee seme-alabei, umeak dirala ahaztuz.

